




Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru-Programa (2002-2006)

Garapen Jasangarriaren
Euskal Ingurumen-Estrategia
(2002-2020)





ARGITARATZAILEA: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa - IHOBE

DISEINUA: Dual XJ - Comunicación & Diseño

IMPRIMAKETA: Berekintza

ITZULPENA: Elhuyar

© IHOBE 2002

<http://www.ingurumena.net>

LEGE GORDAILUA: BI-1596-02

% 100 paper birziklatuan inprimatua

**Euskal Autonomia
Erkidegoko Ingurumeneko
Esparru-Programa (2002-2006)**

**Garapen Jasangarriaren
Euskal Ingurumen-Estrategia
(2002-2020)**





Lehendakariaren aurkezpena

Pozik aurkezten dizuedan Garapen Jasangarriaren EAEko 2002-2020rako Ingurumen Estrategia, 2002ko ekainaren 4an onartu zuen Gobernu Batzordeak. Eta horren xedea euskal gizarteak lortu beharko dituen ingurumen-helburuak finkatzea da, egungo belaunaldien bizi-kalitatearen maila egokia lor dadin bermatzeko, betiere etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe. Hortaz, administrazioak, ekoizpen-eragileek eta hiritarrek jarduteko jarraibideak finkatzen ditu.

Herri gisa jarri ditugun bost Ingurumen-helburuak honako hauek dira:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua
3. Natura eta Biodibertsitatea babestea
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea

Estrategia hau, beste ezer baino lehen, eragile guztien borondate desberdinen estrategia bateratzailea da. Ehun konpromiso baino gehiago barne hartzen ditu eta ez da erraza izango guztiak lortzea. Horregatik aha-leginak eta borondateak bateratu behar ditugu, ingurumena sektore-politiketan txertatzeko.

Estrategia hau onartu ondoren, badugu erreferentzia-esparru bat. Erronka gure helburura iristea izango da. Ingurumeneko gaitan ezin dugu zain egon eta ezin dugu hutsik egin. Gure seme-alabentzako ondarea jokoan dago. Garapen Jasangarriak pertsona guztientzat, oraingoentzat eta gerokoentzat, bizi-kalitate hobea bermatzea esan nahi du. Gure bizi-kalitatea, beraz, jasangarritasunaren zimentarrien gainean eraiki nahi dugu.



Juan Jose Ibarretxe
Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakaria


Aurkibidea

1. Garapen Jasagarria. Testuingurua eta Printzipioak	7
2. EAEko Garapen Jasagarriaren Ingurumen-Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006)	15
3. Ingurumen-diagnostikoaren Ondorioak eta Jasagarritas Unerako Joera Garrantzitsuak	19
4. Ingurumen-Helmugak: Helburuak eta hartu Beharreko Konpromisoak	23
5. Euskal Autonomia Erkidegoan Jasagarritasuna Lortzeko Bidean aurrera Egiteko behar diren Baldintzak	45
6. Ingurumeneko Esparru-Programa Martxan Jartzea	59
7. Ingurumeneko Esparru-programaren Segimendua eta Ebaluazioa	67
I. ERANSKINA. Euskal Autonomia Erkidegoko Jasagarritasunaren Aldeko Konpromisoa	74
II. ERANSKINA. Erreferentziazko Dokumentazioa	76
III. ERANSKINA. Terminoen Glosarioa	84
IV. ERANSKINA. Garapen Jasagarria Lortzeko Ingurumen-adierazleen Europako Proposamena	90
V. ERANSKINA. EAEko Goiburuko Ingurumen-adierazleak	92

1



Garapen Jasangarria.
Testuingurua
eta Printzipioak





Garapen Jasangarria. Testuingurua eta Printzipioak

Garapen Jasangarriaren Kontzeptua

Garapen jasangarria kontzeptua dokumentu ofizial batean lehen aldiz "Gure etorkizun komuna" izenekoan agertu zen. 1987. urtean landutako dokumentua *brundtland txostena*¹ izenez ere ezagutzen da. Bertan, honela definitu zen Garapen Jasangarria:

"... etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izango duten ahalmena arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituen garapena."

Definizio hau Natura Kontserbatzeko Munduko Batasunak emandakoaren osagarria da²:

"Garapen jasangarriak ekosistemen muga barruan bizi-kalitatea hobetzea dakar."

Formulazio horietako kontzeptuak aparteko onarpena izan zuen nazioartean. Kontzeptua, ordea, *Rioko Goi-bileran*³ onartu zen planetaren ingurumenaren etorkizuna definitzeko giltzarri gisa. Goi-bileran horretan, gaur egun ingurumenaren arloko edozein estrategia definitzeko oinarritzotzat jotzen diren hainbat dokumentu sinatu zituzten 179 estatuk:

- *Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko deklarazioa,*
- *Agenda 21,*
- *Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena eta*
- *Klima Aldaketari buruzko Hitzarmena.*

Rioko deklarazioak hiru dimentsioko oinarria jarri zion garapen jasangarriari. Ekonomia, gizartea eta ingurumena barne hartzen dituen garapen-eredu berria da. Zutabe horiek dira sustatu behar dugun etorkizuneko garapen-ereduaren zutarrak saihestezinak.

Eta formulazio oso horrek planteatzen du benetako erronka: kontua ez da garapen jasangarriaren alderdi bakoitzeko politikak eta programak zehaztea; kontua da hiru alderdi horiek integratu egin behar direla, ingurumenean nolako ondorioak izango dituzten planteatu ere egiten ez duen politika ekonomikorik egin ez dadin; eta gauza bera ingurumen-programei dagokienez ere; alegia, ez dadila garapen ekonomikoa eta gizartearen ongizatea bermatuko ez duen ingurumen-programarik egin.

1. Ingurumeneko eta Garapeneko Mundu Batzordea, 1987, 43. or. Dokumentu hau Norvegiako lehen ministro izan zen Gro Harlem Brundtland-ek landu zuen, Nazio Batuek eskatuta.

2. Nazio Batuen eta Naturarentzako Mundu Fondoaren Ingurumenari buruzko Programa, 1991.

3. Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentzia, Rio de Janeiro, Brasil, 1992ko ekainaren 3tik 14ra.

Garapen jasagarria bost ideia nagusian oinarritzen da:

1. Garapenak honako hiru alderdi hauek izan behar ditu kontuan: **ekonomia, gizartea eta ingurumena**. Eta bizi-kalitatean eragiten duten faktoreen arteko oreka lortzen bada bakarrik izango da jasagarria.
2. Eredu jasangarriagoetarantz joateak jasangarritasuna **prozesu** gisa hartzea eskatzen du.
3. Jasangarritasunaren bidean aurrera egitea aldaketa positiboa da. Estrategiak aldaketa positiboak dira enplegu-aukerak eta hiritarren ongizatea areagotzeko.
4. Garapen jasagarria **aukera estrategiko** garbia da epe luzera, **epe laburrean** egokitzapen-kostu batzuk eragin ditzakeen arren.
5. **Erakundeen konpromisoa eta gizartearen adostasuna** funtsezkoak dira jasangarritasuneko bidean aurrera egiteko prozesuan.

Garapen Jasagarria Lortzeko Bidean, Europako Estrategia

Ingurumen Ekintzako V. Programa (1992-2000)⁴ gainerakoekin alderatuta, "180 graduko bira" zela adierazi zuen Europako Batasunak. Izan ere, "Ezin dugu itxaron [...], eta ezin dugu hutsik egin". Dena den, Programa berraztertzerakoan, hainbat arlotan aurrerapenak egin diren arren garapen jasagarria lortzeko bidean aurrera egin nahi bada oraindik zeregin asko dagoela onartu da. Gaur egungo ekonomia-sistemak, berriz, hondakinak asimilatzeke ahalmena eta baliabideak mugagabeak izango balira bezala jokutzen du.

Ingurumen Ekintzako V. Programaren (1998) ebaluazioan, Europako Batasuneko Kontseiluak jakinarazi du berak egindako ingurumen-politikaren ondorioz hainbat gauzatan aurrera egin dela, eta, esate baterako, ibaiak garbiago daudela eta airearen kalitatea hobetu egin dela. Nolanahi ere, hainbat arazo garrantzitsutan aurrerapen horiek ez direla izan behar bestekoak ere nabarmendu du. Ildo horretan, kezka handia eragin du hainbat arlotan aurreikusitako joerak; besteak beste, joera horiek hauek dira: poluzio-iturri lausoak izatea (emisio txiki ugari, bereziki, lurpeko uretan, lurlean eta kostaldean); hondakinen ekoizpena gehitzea eta, ondorioz, hondakin horiek deuseztatzeko arazoak gehitzea; geroz eta baliabide natural gehiago kontsumitzea; gai arriskutsuak eta horrek giza osasunean eragin ditzakeen arriskuak sakabanatzea; lurrak degradatzea; planeta berotzea eta biodibertsitatea galtzea.

Horrez gain, hurrengo hamarkadan ingurumen-arazo horietako asko desagertu ez ezik areagotzeko aukera dagoela eta, Kontseilua kezkatutik dago; izan ere, kontsumoaren eta ekoizpenaren ildoan joera kezkarria izango da, baldin eta joera horien eragin negatiboak indargabetzeko neurri berriak hartzen ez badira. Horregatik, ingurumena babesteko baldintzak lehenbailehen integratu behar dira beste politiketan (bereziki, nekazaritza, garraioa, energia, barne-merkatua, garapena, industria eta arrantza aipatzen ditu). Ingurumenaren alorreko Batasuneko legeak hobeto aplikatzeko eta finkatzeko beharra ere aipatzen du, eta baliabideen aukerak (bereziki ekonomia-arloan eta, esate baterako, energiaren gaineko zergetarako esparru egokiaren inguruko erabakirik ez hartzeari dagokionez) zabaltzeko behar adina aurreratu ez delako kezka azaldu du.

4. 1998ko irailaren 24ko 2179/98/CE erabakia.

Garapen jasangarriaren gertaera garrantzitsuak Europako Batasunean

1992. Ingurumen Ekintzako Bosgarren Programa (1993-2000). Programa honen helburu orokorra honakoa da: gaur egungo garapeneko, ekoizpeneko, kontsumoko eta portaerako ildoak aldatzearen bidez, izaera jasangarriagoa izango duten erak lortzeko giza jarduera eta garapena pixkanaka-pixkanaka orientatzea.

1997. Amsterdamgo ituna. Itun honen bidez, Europako Batasunaren helburuak beste hauek ere lirake: "ingurumena errespetatzen duen hazkunde jasangarria" eta ingurumena beste politikan aintzat hartzea (2. eta 6. artikulua).

1998ko ekaina. Cardiff-ko Europako Kontseilua. Integrazioan eta adierazleak sortzen lan gehiago egin dezatela eskatu zitzaien Batzordeari eta Kontseiluari. Honen helburuak aurrerapenak ikuskatzen laguntzea eta hiritarrek gai hauek errazago ulertzea lirake.

1999ko ekaina. Koloniako Goi-bilera. Europako Kontseiluak ingurumen-integrazioari eta ingurumen-politikaren zeharkakotasunari buruzko Batzordearen behin-behineko txostena jaso zuen [SEC (1999) 777 amaiera].

1999ko abendua. Helsinkiko Goi-bilera. Estaturuek eta gobernuburuek garapen jasangarriaren eta hori lortzeko giltzarri den integrazioaren aldeko konpromisoa berretsi zuten [SEC (1999) 1941 amaiera].

2000ko martxoa. Lisboako Goi-bilera. Goi-bilera honen ondorioz, garapen jasangarriaren hiru dimentsioko ikuspegiaren barruan ekonomiaren eta gizartearen alderdiak kontuan hartzen hasi ziren.

2001eko urtarrila. "Ingurumen Ekintzako Seigarren programa" dokumentua aurkeztu zen. Bertan, garapen jasangarriko estrategia integratuaren dimentsio ekologikoa deskribatzen da.

2001eko ekaina. Gotenburgoko Goi-bilera. "EBrako garapen jasangarriko estrategia" onartu zen; estrategia horren bidez, ingurumenaren dimentsioa erantsi zitzaion Lisboako strategiari.

Cardiffko Kontseiluak bultzada handia eman zion jasangarritasunaren ideari. Hiru urte geroago, Gotenburgoko Goi-bileran, garapen jasangarria lortzeko estrategia garatzeko oinarriak finkatu ziren. Goi-bilera horretan, garapen jasangarriaren hiru zutabeak legeria-esparru integratuan kontuan hartzeko prozesuari amaiera eman zitzaion. Politikak formulatzeko eta politika egiteko ikuspegi berriaren hastapena izan zen. Hori lorpen handia da, Luxemburgoko Goi-bileran (1997ko abenduan) proposatu zen ekimenarekin, alegia, Batasuneko politiken definizioan jasangarritasunaren irizpidea txertatzea helburu zuen ekimenarekin, bat egiten duena.



“Garapen jasangarriaren aldeko Europako Estrategiaren” ildo nagusiak Goteborgko Europako Kontseilua-
ren ondorioetan sartu ziren eta Johannesburg-en 2002an garapen jasangarriari buruz egingo den mundu-
ko goi-bilerarako (Rio+10) Europako Batasuna prestatzen ari den lanetan aintzat hartzen ari dira. Goi-bile-
ra hori egin aurretik, Batzordeak beste Komunikazio bat plazaratuko du; komunikazio horren gaia hauxe
da: Batasunak munduko garapen jasangarriari ekarpenak nola egin.

Europako Estrategiak epe luzerako honako helburuak eta helmugak ditu:

1. **Politika-alor askotan aritu beharra.** EBko politikak lagungarri izan behar zaizkie Batasuneko ga-
rapen jasangarriko helburu estrategikoei.
2. **Klima-aldaketa mugatzea eta energia garbien erabilera areagotzea.** Berotegi-efektua eragiten
duten gasen emisioak murriztea; 2020 arte, urtero gutxienez % 1 murriztu beharko lirateke
emisioak.
3. **Osasun publikoaren aurkako mehatxuei aurre egitea.**
 - Elikagaien segurtasuna eta kalitatea bermatzea.
 - 2020. urterako, produktu kimikoen erabilera eta ekoizpena giza osasunerako eta inguru-
menerako mehatxuak ez izatea.
 - Gaixotasun infekziosoen agerraldiekin eta antibiotikoekiko erresistentziarekin lotura duten
arazoak konpontzea.
4. **Baliabide naturalak erantzukizun handiagoz kudeatzea.**
 - Hazkunde ekonomikoa, baliabideen erabilera eta hondakinen sorrera bereiztea.
 - Habitata eta natur sistemak zaintzea eta berreskuratzea, eta biodibertsitatearen galera
geldiaraztea 2010era bitartean.
 - Arrantzaren kudeaketa hobetzea, arrain-populazioaren gainbeherari aurre egiteko eta
arrantzaren jasangarritasuna eta itsas ekosistemen egoera ona bermatzeko.
5. **Garraio-sistema eta lurraldearen antolamendua hobetzea.**
 - Garraioaren hazkundera BPGaren hazkundetik bereiztea, garraioaren kongestioa eta beste
albo-efektu batzuk murriztearren.
 - Garraioaren erabileran, errepidetik trenbide, ubide nabigagarri eta bidaiarien garraio pu-
blikorako transferentzia lortzea, 2010eko errepide-garraioaren kuota 1998koa baino han-
diagoa izan ez dadin.
 - Eskualdeen garapen orekatuagoa bultzatzea, ekonomia-jardueran dauden aldeak gutxituz
eta landa- eta hiri-komunitateen bideragarritasunari eutsiz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarria

1992an Rio de Janeiron egin zen Goi-bileraz geroztik, garapen jasangarriaren kontzeptua kontuan izaten
ari da planetan eta araudietan, Euskal Autonomia Erkidegoan ere bai. Euskal Baso Planak (1994-2030) ga-
rapen jasangarria sartuta du hori osatzen duten irizpideetan; baita mendietako foru-arauetan ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra (aurrerantzean 3/1998 Legea) oso garrantzitsua da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidego osoan garatzen diren ingurumen-politika guztiek garapen jasangarria helburu izan behar dutela esaten du. Legeak dioenez, airea, ura, lurra, paisaia, flora eta fauna modu jasangarrian erabiliko dira (1. artikulua), eta etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituen garapen jasangarria bermatzeko konpromisoa bere egiten du (2. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren helburuak

- Etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izango duten ahalmena arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituen garapen jasangarria bermatzea.
- Biodibertsitatea kontserbatzea, bere osagaiak era jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumeneko baliabideen erabileraren ondorioz sortutako etekinak justiziaz eta zuzentasunez banatzeko.
- Hiritarren bizi-kalitatea hobetzea, bizi den ingurumena edozein izanda ere.
- Ingurumena babestea, narriadura prebenitzea eta kaltetu diren lekuak leheneratzea.
- Ingurumen-inpaktuak txikiagotzea, jardueren ondorioak aurretik ebaluatuz eta neurri zuzentzaileak hartuz.
- Ingurumen-ezagutzaren alor guztietan ikerketa sustatzea.
- Ingurumenaren alorreko heziketa hezkuntza-maila guztietan sustatzea, baita hiritarrak ingurumena babesteko kontzientzia daitezen sustatzea ere.
- Hiriko ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea; horretarako, hiri-plangintzan eta ondare historikoa babesteko garaian, ingurumenaren arloko irizpideak eragingarritasunez barne hartu behar dira.
- Landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea; horretarako, nekazaritza-jardueraren eta ingurumenaren arteko oreka zaindu eta bultzatu egin behar da.

Lehendakariak "*Jasangarritasunaren aldeko Euskal Autonomia Erkidegoko konpromisoa*" (2001eko urtarila) sinatu izanak argi erakusten du ingurumenaren aldagaia kontuan hartzen duen garapen jasangarriaren eredu berriaren oinarriak finkatzeko asmoa.




Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunaren aldeko konpromisoa bultzatzeko printzipioak. 2001eko urtarrila

- **Kode etikoa.** Gure pentsatzeko era, balioak, bizimoldeak eta kontsumo-ohiturak aldatu egin behar ditugu.
- **Kohesioa eta gizartearen partaidetza.** Gizarteko sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunarako bidean.
- **Zuhurtzia-printzipioa.** Ingurumenari kalte egin dakiokela uste denean, esku hartu beharra dago.
- **Ikuspegi integratua.** Ingurumenaren aldagaia sektoreko politika guztietan aintzat hartzea ezinbestekoa da.
- **Ekoeraginkortasuna.** Baliabide naturalen erabilera murriztu daiteke eta murriztu egin behar da, betiere baliabide horien produktibitatea areagotuz.
- **Plangintza estrategikoa.** Ingurumen-helburuek euskal gizartearen garapeneko eredu berriari buruzko gogoeta-prozesuaren emaitza izan behar dute.

Lehenago esanenez, Goteborgko Goi-bileran Europako Batasuna garapen jasangarriaren definizioan hirugarren aldagaia aintzat hartzen hasi zen; horrenbestez, ekonomia eta gizarteaz gain, ingurumena ere kontuan hartzen hasi zen. orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoan, garapen jasangarria definitzeko garaian, ekonomiaren eta gizartearen alderdietan gehiago aurreratu da. Ekonomiaren eta gizartearen alderdietan jasangarritasun-printzipioak barne hartu dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ekimenak, besteak beste, honako hauek izan dira: Gizarte-bazterketaren kontrako legea, Gizarte-eskubideen karta, Landa Garapen Jasangarrirako 2000-2006 Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiborako Plana, EAEko Udalerrietan Tokiko Agenda 21 Sustatzeko 2000-2003 Programa, etab.

Dokumentu hau –"Ingurumeneko Esparru Programa – Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia"– onartzen denetik aurrera zehaztu eta kontuan hartu da ingurumenaren aldagaia Euskal Autonomia Erkidegoko garapenaren berezko kontzeptu gisa.

2



EAEko Garapen Jasangarriaren
Ingurumen-Estrategia
(2002-2020)
eta Ingurumeneko Esparru
Programa (2002-2006)



2

EAEko Garapen Jasangarriaren Ingurumen-Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006)

3/1998 Legearen seigarren artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programan gauzatuko da. Lau urteko iraupena izango duen programa hori Gobernuak onartuko du, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da. Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiak lege-agindu hori jasotzen du eta epe luzerako ikuspegi estrategikoan txertatzen du. Estrategia hori zehazteko, hain zuzen, honako alderdi hauek izan dira kontuan:

1. 3/98 Legeak agintzen duena betetzea, lau urterako konpromisoak zehaztuz (2002-2006)
2. Epe luzerako ikuspegia izatea, etorkizunean eguneratu behar denean erreferentzia gisa hartze-ko, eta nazioartean egiten diren garapen jasangarriko politikekin bat etortzea.
3. Aurreko eremuan erabiltzeko metodologia gisa, plangintza estrategikoa garatzea.
4. Programa osoa diseinatzeko ardatza parte-hartzea izatea.

3/98 Legeak agintzen duena betetzea

Programan Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikak oinarri dituen printzipioak – 3/98 Legearen bosgarren artikulua zehazten dituenak – biltzen dira. Ingurumen Organoak egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordean ordezkaturako Herri Administrazioekin batera.

Halaber, 3/98 Legean aurreikusitakoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-egoerari buruzko txostena egin da. "2001eko EAEko Ingurumena. Diagnostikoa" izeneko txosten hori izan da Programa hau egiteko oinarria.

Epe luzerako aldi baterako ikuspegia

3/98 Legearen arabera, Esparru Programak lau urteko iraupena izango du. Baina, Lege horretan, ingurumen-politikak antolakuntza egonkorra eta iraupen luzekoa izatea beharrezkoa dela ere jasotzen da; izan ere, horrek ekintza publikoari eta ekimen pribatuari bermea, segurtasuna eta eragingarritasuna emango dizkie. Horregatik, aldi baterako eta erreferentziazko horizonte estrategikoa 2020. urtean jarri da, Europako Batasunak garapen jasangarriko bere estrategian egin duen bezalaxe. Beraz, agiri horrek perspektiba bikoitza du: alde batetik 2020koa, aldi baterako eta erreferentziazko horizonte estrategikoarena (Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia), eta bestetik 2006koa, onartuko diren konpromiso gehienak zehaztuko dituen Ingurumeneko lehen Esparru Programarena. Helburu bikoitz horrekin, garapen jasangarriari dagokionez, nazioartean orain dauden ekimenetara egokitu nahi da gurea.

Epe luzeko ikuspegia izanda, 1992an Rio de Janeiron egindako Lurraren Goi-bileran, lurralde bakoitzean garapen jasangarriko estrategiak egiteko hartutako konpromisoa betetzeko, garapen jasangarriko EAEko ingurumen-estrategia egiteko aukera dago. Johannesburg-En egingo den Lurraren hurrengo Goi-bileran proposamenak alderatu eta eztabaidatuko dira, bai eta nazioartean jasangarritasunari dagokionez zertan aurreratu den ere.

Plangintza estrategikoa

Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiak ez du datozen urteetan lortu beharreko helburuen eta egin beharreko jardueren zerrenda ordenatu soila besterik izan nahi. Dokumentu horren balio erantsia, euskal gizarteak lortu behar dituen ingurumen-helburuak finkatzea eta egungo belaunaldien bizi-kalitatearen maila egokia lor dadin bermatzea dira, betiere etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe. Horretarako, hiritarrentzat, ekoizpen-eragileentzat eta administrazioarentzat jarraibide komunak finkatzen ditu. Hortaz, honako puntu hauen inguruan egituratzen da:

1. **Ingurumen-helmugak.** Ingurumen-helmugek EAEn epe luzera desiragarriak diren egoerak zehazten dituzte. 2020. urteko denbora-muga.
2. **Helburuak.** Ingurumen-helmugak lortzeko, pixkanaka eta hautematen diren egoera berrietara egokituz egin behar da aurrera. Ingurumen-helmuga bakoitzari dagozkion helburuak formulatzeko 3/98 Legeak finkatzen dituen zuhurtziaren eta prebentzioaren printzipioa, kalteak lehenik sorburuetan zuzentzeko printzipioa eta ingurumena leheneratzeko printzipioa hartu beharko dira kontuan.
3. **Hartu beharreko konpromisoak.** Ingurumen-helmugak eta -helburuak lortzeko balio kuantitatiboak eta epe zehatzak jartzeak konpromiso zehatzak hartzera bultzatzen du.

Edonola ere, teknikaren eta jakintzaren bilakaerak konpromiso horiek Ingurumen Estrategia honek zehazten duen epean gertatuko diren egoeretara moldatzeko moduan definitu beharra eragiten du.


Partaidetza

Garapen jasangarriko eredu sortzea erakunde publikoen eta gizarte-eragileen arteko konpromisoan eta lankidetzan oinarritzen da, eta 2002ko ekainean onartuko den behin-betiko agiria, denen artean adostutako agiria, denen artean egindakoa eta euskal eragile guztientzat egindako izatea nahi da.


Lantzeko prozesua 2001eko urtarrilean hasi zen eta honako erakunde hauek ordezkatzeko zituzten 150 lagunek baino gehiagok hartu dute parte:

- *Eusko Jaurjaritza.*
- *Foru Aldundiak.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea.*
- *Ingurumeneko Batzorde Aholku-emailea.*
- *Hainbat arlotako (ekonomia, gizarte eta ingurumeneko) adituen Lan Taldeak.*
- *Eragile sozioekonomikoak.*

3



Ingurumen-diagnostikoaren
Ondorioak
eta Jasangarritas Unerako
Joera Garrantzitsuak



3 | Ingurumen-diagnostikoaren Ondorioak eta Jasangarritas Unerako Joera Garrantzitsuak

Jasangarritasuna lortzeko prozesuak gaur egungo egoera zein den definitzeko eskatzen du, hau da, ingurumenaren gaur egungo egoeraren abiapuntua zein den definitzeko. EAEko ingurumen-sistemaren diagnostikoak –"2001eko EAEko ingurumena. Diagnostikoak"– honako hauek identifikatu ditu:

- *gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan lehentasuna duten ingurumen-gaiak,*
- *Administrazioak, gizarteak eta ekonomiaren eragileek azken urteotan gai horiei emandako erantzunak,*
- *eta gizarteak bizi-kalitatea hobetzeko egindako eskaerak.*

Asko aurreratu dela onartu behar bada ere, diagnostikoak, jakina, egoera hobe daitekeela erakusten du. Gaur egun presio handienak lurzorua eta uraren kontsumoan, hondakin-sorkuntzan (hondakin arrisku-tsunak izan ezik), hiri-inguruneetako airearen kalitatean, kontinenteko uretan eta itsas eta itsasertzeko ingurunean izaten ari dira. Presio handi horiek eragiten dituzten agente nagusiak honakoak dira: garraioa, industria eta kontsumitzailea bera.

Etorkizunean ingurumenaren gaineko presioek batez ere honakoetan eragingo dutela aurreikusten da: lurzorua kontsumoan, produktu kimikoen emisioan, klima-aldaketan, hirietako airearen kalitatean eta biodibertsitatean. Presioak areagotze hori, batez ere, garraio-sektoreak eta, kontsumitzaile direnez, biztanleek eragingo dute. Halaber, ekonomia-jarduerarako eta etxebizitzetarako erabiltzeko lurzorua orekarik gabe kontsumitzeak nahi ez diren eraginak izango ditu EAEko ingurumenean.

Beraz, industrializazio ondorengo gizarteetan ingurumenaren gainean presioa egiteko moduak aldatuz doazela nabaria da, eta ikusi egiten zen poluziotik –industriarekin lotutakotik– nagusiki kontsumoko ereduaren oinarritutako ingurumen-narriadurara pasatu da.

Ingurumen-gaien oraingo egoerari eta inpaktuari dagokienez, egoera okerreana, produktu kimikoen emisioan, klima-aldaketan, itsas eta itsasertzeko ingurunean eta lurzoru poluituetan dagoela nabarmen daiteke.

Ingurumenean eragina duten agenteei dagokienez, ondorengo nabarmendu behar da:

- Hurrengo urteetan ahalegin handienak garraioan egin beharko dira integrazio hori lortzeko. Besteak beste, automobila eta ibilbide laburretan airetiko garraiobideak erabiltzeko alternatibak bilatu beharko zaizkio.
- Sektorre industrialia da, besteekin alderatuz, ingurugiro-integrazioan gehien aurreratu duena. Azpimarratu beharra dago azken urteotan euskal enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzen aurrerapausoak eman direla.
- Energiaren sektoreak erronkatzat hartu du ekonomia/ingurumena integrazioa eta, produkzio-unitateko energia-kontsumoak murriztean, elkarrengandik zerbait bereiztea lortu du. Bereizketa hori gertatu arren, eta agenteen presioa dela eta, EAEn, energia-kontsumo osoa igotzen ari da.

- Geografiaren eta produkzio-azpisektorearen arabera intentsitatea berdina ez den arren, nekazaritza-sektoreak ingurumenari eragiten dioten hainbat arazo ditu; hala nola, higadura, poluzioa, gero eta hondakin desberdin gehiago sortzea eta biodibertsitatea galtzea. Lehen sektorea jasangarritasun-irizpideak sartzen hasi da, besteak beste, nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak aplikatzearen, ingurumena errespetatzen dutela egiaztatzen duten nekazaritzako produktuen eta Basoaren Kudeaketa jasangarriko (basoko ziurtagiria) Europako herrialdeen irizpideen eta adierazleen bidez.
- Etxe-sektoreak presio handia eragiten du ingurumenean, eta euskal hiritarren ingurumen-arazoko kontzientzia-maila handi samarra duten arren, asmo oneko adierazpenak eta ingurumen-beharrak (adibidez, autoa erabiltzea eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta zerbitzuak erostea) ez dira beti bat etortzen.

Oro har, ez da etorkizunean ingurugiro-presioen eragile nagusietan hazkunde-joera nabarmenik aurreikusiten (garraioan, industrian eta kontsumoan gorako joerari eutsiko zaio). Horregatik, beharrezkoa da sektore horietan aurreikusitako hazkundera eta sortzen dituzten ingurumen-eragin negatiboak erabat bereizteko tresnak bilatzea. Hau da, sortzen diren ingurumen-presio negatiboak murriztuz, hazten jarrai daitekeela frogatu behar da.

Ingurumen-politikak ezin die berak bakarrik ingurumenarekin lotzen diren arazo guztiei irtenbidea eman.

Beraz, ingurumen-helburuak politika publiko guztietan hartu behar dira kontuan. Administrazioari ere ingurugiroa hondatzea saihesteko planak eta programak ezartzeko aitzindari-eginkizuna har dezala eskatzen zaio.


Administrazioari dagokionez, ezinbestekoa da ingurumenari eragiten dioten agente guztietan ingurumen-politika aurreratutak ezartzen aitzindari izateko izan behar duen eragile-eginkizuna. Gainera, beharrezkoa da bere plangintza eta programa guztietan ingurumenaren aldagaia bere diseinuen hasiera-hasieratik sartzea. Administrazioari beste zeregin bat dagokio gizartearen elementu motibatzaile, sentsibilizatzaile eta eredu-garri gisa.

Diagnostikoan nabarmendu den funtsezko beste faktore bat ingurumeneko hainbat gaitan informazio-gabezia handia egotea izan da. Horrek arazoen ebaluazioa behar bezala egiteko eskatzen du eta hiritarrekin komunikazioa –ingurumena errespetatuko duen gizarte-portaera sortzeko ezinbesteko faktorea– zaildu egiten du. Gainera, jendearen parte-hartzea aktiboa, arduratsua eta eragingarria izatea ahalbidetzen duten mekanismoak sortzea ezinbestekoa da.


Oro har, garapen-eredu berria osatzeko aukerak zabaldu egin dira, eta, garapen jasangarriko Europako Batasuneko Estrategian⁵ agertzen denaren arabera, horrek **epe luzera ingurumen garbiagoa, seguruagoa eta osasuntsuagoa izango duen gizarte oparo eta zuzenagoaren ikuspegi positiboa** eskaintzeko aukera ematen du. Hori lortzeko, beharrezkoa da hazkunde ekonomikoak aurrerapen soziala bultzatzea eta ingurumena errespetatzea, gizarte-politikak emaitza ekonomikoei sostengatzea eta, azkenik, ingurumen-politika errentagarria izatea.

5. Europako Batasuneko Batzordea, *mundu hobe lortzeko garapen jasangarria Europan: Garapen jasangarriko Europako Batasunaren estrategia*, Batzordearen Komunikazioa, COM(2001) 264 azkena, 2001eko maiatzaren 15ekoa.

4



Ingurumen-Helmugak:
Helburuak eta hartu
Beharreko Konpromisoak



4 | Ingurumen-Helmugak: Helburuak eta hartu Beharreko Konpromisoak

"Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren Estrategia" dokumentuan jasotako bost helburu eta helmugekin, eta 2001eko EAeko Ingurumen Diagnostikoan aztertutako hamar ingurumen-gaiekin bat etorritik, Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategiaren lehenetsun nagusiak bost Ingurumen Helmugatan bildu dira. Horrela, funtsezko alderdiak epe luzerako (2020) bost Ingurumen Helmugatan bilduta, lehenetsuna duten helburu estrategikoak errazago finka daitezke eta Helmuga horiek lortzeko hartu beharreko konpromisoak betetzen diren errazago ebalua daiteke.

1. HELMUGA. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea

Ingurumeneko Jasangarritasun Estrategiaren lehenetsunetako bat inguruneak garbi egotea izango da, eta helburua, berriz, herritarren bizi-kalitate ona lortzea.

Uraren, airearen eta lurzoruaren poluzioak eragin zuzena eta negatiboa du giza osasunean, bai esposizio zuzenak eraginda, bai elikagaiak ahoetatuta. Gainera, ingurumenaren nariadurak talde batzuei, hala nola haurrei eta adinekoei, errazago erasotzen die eta beren osasunean ondorio itzulezinak eragin ditzakete. Horri dagokionez, arriskua ziurtasun nahikoaz zehatz ezin daitekeenean, zuhurtzia-printzipioak agindu behar du beti.

Helmuga honetan diagnostikoan aipatzen diren ingurumen-arloko lehenetsunetako bost gai lantzen dira:

- *produktu kimikoak isurtzea,*
- *hiriko ingurumena (airearen kalitatea hiriko ingurumeneko funtsezko elementuetakoa da),*
- *ur kontinentalak,*
- *arrisku naturalak eta teknologikoak (arrisku horien prebentzioaren bidez inguruneetara egindako emisioak eta isurpenak murriztu egingo dira)*
- *eta lurzoru poluituak.*



Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatuz gero, **ingurumenaren kalitate ona lortzen da, eta, ondorioz, gizakiak eragindako poluzioak, erradiazio-motak barne, ez du arriskurik sortzen gizakien osasunean, ekosistemetan eta natur eta kultur ondarean.** Ingurune horien kalitatea behar bezala zaintzeko, behariazko behatokiak jarriko dira horietako bakoitzarentzat.

Helmuga honi lotuta dauden eta arazoa prebenitzeko eta zuzentzeko ildo nagusiarekin zerikusia duten arloak honako hauek dira:

◆ HELBURUAK

1. helburua: Ingurune guztietara gai arriskutsuen eta poluitzaileen emisioak eta isurpenak murriztea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Gai poluitzaileen emisio eta isurpenak sorburuan bertan era integratuan murriztea.
- Ekoizpen garbirako sistemak sustatzea.
- Erradiazioen eta zaraten emisio kaltegarriak gutxitzea.
- Emisio-arriskuak eta istripuz gertatutako isurpenak (arrisku teknologikoak) murriztea.
- Natur arriskuak (uholdeak, higadura, akuiferoen karga, etab.) eragin ditzaketen lurren urbanizazioa gelditzea eta gaitasun agrologiko handiko bezala katalogatutako eta babestutakoak hartzea moteltzea.
- Lan-osasunaren eta ingurumenaren kudeaketa integratua sustatzea.

2. helburua: Ingurumenaren kalitatea hobetzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Degradatutako lurpeko eta lur gaineko urak garbitzea edo araztea.
- Lurzoru poluituak berreskuratzea.
- Elikagaien segurtasuna bermatzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK: INGURUMENEO ESPARRU PROGRAMA 2002-2006

Orokorrean

- Nazioarteko komunitate zientifikoak onartu ahala eta Europako araudian sartu ahala, gai arriskutsuak sortzea, erabiltzea eta horien emisioak eta isurpenak ezabatzea.
- Baso-azalerari eustea eta/edo hori gehitzea, horrek airea garbitzeari, uren erregimen hidrologikoari eusteari eta higadura kontrolatzeari dagokionez, onurak eragiten dituelako.
- 2003. urterako, industriaren sektorean, emisio poluitzaileen Europako inbentarioko (EPER)⁶ poluitzaileak kontrolatzeko eta prebenitzeko estrategia lantzea.
- 2003. urterako, behe-maiztasuneko (50 Hz) eremu elektromagnetikoen eta irrati-maiztasunen esposizio-mailen gutxi gorabeherako azterketa egitea, bai nekazaritzako guneeetan, bai hirigune-

6. 2000/479 Ebazpenaren arabera.

etan. Horretarako, esposizioa gutxitzeko helburuak finkatu behar dira; helburu horiek, besteak beste, erabil daitezkeen teknologien jakintzaren egoera eta instalazioen kokapenaren planifikazioa hartu behar dituzte kontuan.

- 2004. urterako zarata-maila handia jasan behar izaten duen biztanleriaren azterketa/diagnostikoa egitea eta horiek murrizteko estrategia zehaztea.
- Nekazaritza- eta ingurumen-arloko neurriak sustatzea eta berariazko lurralde-politikak bideratzea, 2006. urterako, nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoa duten lurrak 55.000 ha izatea lortzeko. (4. Helmugan ere jasota dago konpromiso hau)
- 2006. urterako, gai arriskutsu nagusiak ordezkatzeko estrategia lantzea.
- 2004. urterako, produktuetan ingurumen-irizpideak erabiltzea sustatzeko programa egitea (Bizitza Zikloaren Analisia).
- Lan-arriskuen prebentzioko, higieine industrialeko eta ingurumeneko irizpideak barne hartuko dituzten kudeaketa-sistemak sustatzea.

Aireari dagokionez

- Ingurumeneko airearen (immisioa) kalitateari dagokionez Europako Batasunaren helburuak betetzea.
- 2004. urterako, sorburu finkoa duten partikulen emisioen inbentarioa eta kontrolerako estrategia egitea.
- 2004. urterako, Airearen Kalitatea Zaintzeko Sareko datuak Interneten bidez jakinaraztea.
- 2004. urtean NO_x, NH₃ y CO-aren emisioak kontrolatzeko inbentarioa eta estrategia egitea.
- 2003. urterako, mugak gainditzeko arriskuak murrizteko neurriak zein diren jakinaraziko duen eta poluitzaile atmosferikoen immisioen alerta-egoerak edo mugako balioak gainditzearen iraupena mugatuko duen ekintza-plana lantzea.
- 2006. urtea baino lehen, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, airearen kalitateari buruzko informazio-taulak jartzea eta gainerako udalerrietan antzeko dibulgazio-tresnak jartzea.

Urei dagokienez

- 2004. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa egitea.
- 2006. urterako, 2.000 biztanle baino gehiago dituzten guneeetan saneamendu-azpiegiturak izatea lortzea.
- EAEn, ibilgu publikoetara edo itsasoko eta lurreko guneeetara guztira isuritako poluitzaileen kargak 2006. urterako 2001. urtekoekiko % 50 murriztea. (% 60 Gipuzkoa, % 50 Bizkaia, % 20 Araba).

Lurzoruei dagokienez

- Lurzoru poluituaren erabilera finkatu ondoren, hirigintza-kudeaketaren barruko lurzoru guztia- ren ingurumen-irtenbide egokia ematea.
- 2004. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana egitea.
- 2004. urtea baino lehen, EAeko Lurzoru Poluituen Legea onartzea.
- 2004. urterako, lurralde guztiko higadura-maila zehatza jakitea.

- 2006. urterako EAEko higadura kontrolatzeko eta prebenitzeko plana egitea eta higadura-prozesuek eragin handia izandako eremuak berreskuratzea.
- 2006. urterako EAEko lurzoruko poluitu publikoak 2001ekoarekin alderatuta % 20 berreskuratzea.

Elikagaiei dagokienez

- Ingurune-jatorriko gai kimiko iraunkorren esposizioaren –dietaren bidezko esposizioaren– ondorioz osasunean eragindako arriskuak baloratzeko sistemak izatea.
- Hausnarkariak elikatze abere-irina erabiltzea behin betirako galarazita egongo direla zaintzea.
- 2006. urterako, eragin gehien duten Elikadurako Intoxikazioak eta Infekzioak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plan Integrala martxan jartzea; plan horren barruan, lehen mailako produktuetatik kontsumitzaileentzako guztia hartu beharko du barruan.
- 2006. urterako, gizakiarentzako elikagaiei etiketak jartzea, nola ekoitzi diren adieraziz.

EPE LUZERAKO KONPROMISOAK. 2007-2020

Orokorrean

- Nekazaritza- eta ingurumen-arloko neurriak sustatzea eta berariazko lurralde-politikak bideratzea, 2020. urterako, nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoa duten lurak 100.000 ha izatea lortzeko. (4. Helmugan ere jasota dago konpromiso hau).

Aireari dagokionez

- 2010. urterako, 2000. urtean neurtutako mailekin alderatuta⁸ Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) emisioak murriztean Europako Batasunak emisioetarako finkatutako helburuak kontuan hartuta.
- 2000ko datuekin alderatuta⁷, 2010. urterako SO₂-aren emisioak murriztea, Europako Batasunak emisioetarako finkatutako helburuak kontuan hartuta.

Urei dagokienez

- 2012. urterako biztanle guztiak saneamendu-azpiegiturak izatea.
- 2012. urterako, kontinenteko eta itsasertzeko bainurako gune guztiak onargarri edo on gisa sailkatuta egongo dira.
- 2012. urterako, lur gaineko uretan orain lehentasuna duten gai arriskutsuen isurpenak erabat murriztea, 2000/60 Arteztarauen X Eranskinaren arabera, eta etorkizunean sor daitezkeen substantziei dagokienez, epeak zehaztea.
- 2012. urterako, lur gaineko uretan, mantengaien kontzentrazioak eta poluzio organikoa erreferentzia diren mailak lortu arte murriztea.

7. Kalkulatzeko erabilitako metodoak, "sektoreko approach" eta "approach orokorra", Klima Aldaketaren Gobernuarteko Panelean proposatutakoak dira.

- EAEn, ibilgu publikoetara edo itsasoko eta lurreko gunetara guztira isuritako poluitzaileen kargak 2012. urterako 2001. urtekoekiko % 60 murriztea. (% 75 Gipuzkoa, % 65 Bizkaia, % 30 Araba)
- 2012. urterako lur gaineko uren % 80ren egoera ekologikoa eta kimikoa ona edo oso ona izan dadin lortzea⁸.
- 2012. urterako herritarren % 95ek eta 2020. urterako herritarren % 97k ur-horniketa egokia izan dezaten lortzea⁹.
- 2020. urterako, lurpeko uretan edozein poluitzaileen kontzentrazioa finkatuta dauden kalitate-estandarren arabera izan dadin lortzea.

Lurzoruei dagokienez

- 2012rako EAeko lurzoru poluitu publikoak 2001ekoarekin alderatuta % 50 berreskuratzea eta 2020. urterako % 80.

Elikagaiei dagokienez

- 2012. urtean elikagai-toxiinfekzioek 2000ko maila bera izatea lortzea.
- 2012. urterako, haragi-sektorearen, arrantza-sektorearen, arrautza-esnekien sektorearen eta presatutako jakien sektorearen elikagai-industrien % 98k behar bezala diseinatutako, ezarritako eta ikuskatutako osasunaren autokontrolerako sistemak izan ditzaten lortzea.
- 2012. urterako, ikertutako landare-jatorriko elikagaien % 99ren plagizida-maila Hondakinen Muga Maximoa (HMM) baino txikiagoa izatea.
- 2012. urterako, ikertutako animalia-jatorriko elikagaien % 99,8k albaitaritza-tratamenduko gaien hondakinen maila Hondakinen Muga Maximoa (HMM) baino txikiagoa izatea.
- 2012. urterako, ikertutako animalia-jatorriko elikagai guztien maila antimikrobianoa Hondakinen Muga Maximoa (HMM) baino txikiagoa izatea.



8. Lur gaineko uren kalitatea zaintzen duten sareek aztertutako laginketa-puntuak kontuan hartuta.

9. Jendeak kontsumitzeko uraren kalitatea Kontrolerako eta Zaintzarako Unitateek (hornitzaileek) eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak zaintzen dute. Osasun Sailak zaintzarako irizpideak finkatzen ditu eta programa lurralde eta Autonomia Erkidego mailan ebaluatzen du.

2. HELMUGA. Natur Baliabideen eta Hondakinen Kudeaketa arduratsua

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-egoeraren diagnostikoaren arabera, hondakinen sorrera eta baliabideen kontsumoa dira ingurumen-gaietan lehentasuna dutenak.

Sistema sozioekonomikoa natur baliabideen erabileran oinarritzen da. Baliabideen kontsumoa zaintzeak abantaila handiak ditu:

- *poluitzaile gutxiago sortzea eta ingurunera egindako isurketak murriztea;*
- *natur baliabideen berrikuntza-tasa bermatzen denez, baliabide berriztagarriak ez dira agortzen; eta*
- *onura ekonomikoak: baliabideak aurrezteak erostea edo gastatzea baino merkeagoa da. Normalean, poluzioa ekiditea ondoren garbitzea baino merkeagoa da.*

Euskal gizartearen kontsumo-ereduaren ondorioz, hondakinen kopurua nabarmen handituko da. Izatez, teknologia garbien erabilera areagotzen ari den arren, pertsona bakoitzeko sortutako hondakin-bolumena ere, egonkortu beharrean, handitu egin da. Bestalde, EAeko natur baliabideen kontsumoaren eraginez, baliabide horiek presio handia jasaten dute.

Bigarren helmuga honen helburua natur baliabideen (materialen, energiaren, uraren eta lurzoruen) erabilera jasangarria lortzea da, hau da, natur baliabideen kontsumoak eta kontsumo horren ondorioek ingurumenaren karga-ahalmena gaindi ez dezaten lortzea. *Horrek, batetik, natur baliabideen kontsumoa eta hondakinen sorrera eta, bestetik, hazkunde ekonomikoa bereizteko eskatzen du. Horretarako, ekoizpenaren eragingarritasuna natur baliabideekiko mendekotasun txikiagoaren (ekonomiaren desmaterializazioa) bidez hobetu beharko da eta hondakinen sorrera aurreikusi beharko da.*

Helmuga honetan hiru helburu planteatu dira. Lehena natur baliabideen (materialen, energiaren, uraren eta lurzoruen) kontsumo jasangarriari dagokio. Bigarrena hondakinen sorrera aurreikusteari buruzkoa da. Eta hirugarrenak, hondakinen sorrera saihestezina denean, hondakin horiek behar bezala ezabatzea du aztergai.

◆ HELBURUAK

1. helburua: Baliabideen kontsumoak eta kontsumo horren ondorioek ingurumenaren karga-ahalmena eta leheneratzeko ahalmena gaindi ez ditzaten lortzea eta hazkunde ekonomikoa eta baliabideen erabilera bereiz daitezen lortzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Produktuen bizi-zikloa osorik aztertuko duen ikuspegi integrala aplikatzea.
- Natur baliabideen erabileran eragingarritasuna hobetzea.
- Natur baliabideak aurrezteak sustatzea.
- Berriztapen naturalaren tasa ziurtatuko duten eta paisaian eta biodibertsitatean ahalik eta inpaktu txikiena eragingo duten nekazaritzari, arrantzari, basogintzari, zinegetikari eta eruzketari dagozkien ustiapen-prozesuak sustatzea.
- Lurzorua artifizial bilakatzeko prozesuak eta hura suntsitzeko erritmoak pixkanaka gutxitzea eta nekazaritza-lurra babestea.
- Material eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

2. helburua: Azken hondakinen sorrera murriztea eta, sorburuan prebenituz, hazkunde ekonomikoa eta hondakinen ekoizpena bereiz daitezten lortzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Hondakinen ekoizpena eta kaltegarritasuna murriztuz, sorburuan prebenitza eta minimizatzea.
- Berrerabilera eta birziklatzea sustatzea, baita balorizaziorako eta zikloak ixteko beste edozein modu ere.
- Elikagaietarako azken hondakinen sorrera eta arriskua murriztea.
- Jasangarriak ez diren kontsumo-ohituren aldaketa sustatzea.

3. helburua: Azken hondakinak segurtasunez eta berehala kudeatzea.

Azken hondakinak behar bezala kudeatu behar dira, ingurunea poluitzea eragozteko. Eta helburu hau lortzeko azpiegiturak jarri behar dira, ingurugiroaren ikuspegitik hondakinak behar bezala kudeatzeko modu eraginkorrek hiritarrei eta enpresei eskaintzeko. Administrazio Publikoak ekimen pribatuaren interesa sustatu nahi denean edo interes sozialak edo publikoak, kalitateak eta ingurumenaren babesak hori egitea eskatzen duenean.

Helburu hori, hortaz, honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Hondakinak biltzeko eta ezabatzeko EAEko azpiegituren sarea hobetzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK: INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA 2002-2006

Jendea sentsibilizatzeko aldi behingo kanpainak egitea, baliabideen kontsumoa eta hondakin-sorkuntza murriztea eragingo duten ohiturak sustatzeko. Kanpaina horiek honako sektore hauek izan beharko lituzkete helburu: hiritarrak, saltokiak eta banaketa-zentroak, ontziratzaileak etab.

BALIABIDEAK

- 2006. urtean per capita Material Beharrak Guztira (MBG) 1998. urtekoen parekoak izatea lortzea.
- Dentsitate txikiko garapenen bidez egiten den lurzorua kontsumoa saihestea; horretarako, lurralde-antolamenduko baliabideen arabera eraikuntzarako egokiagoak diren lurretan, eraikitze-ko dentsitate handiagoak hartu kontuan.
- EAEn ekoiztutako landare-olioekin egindako lubrifikatzaileen ehuneko gehitzea.
- 2002. urterako, energia berriztagarriak erabiltzen dituzten produkzio deszentralizatuak sarea elektrikoarekin konektatzeko behar diren baliabideak jartzea.
- 2002. urtetik aurrera, emari ekologikoa kontuan hartzen ez duten aprobetxamendu hidrauliko berriak galaraztea.
- 2003. urterako, urari, lortzearen, tratatzearen eta saneatzearen kostu guztiak barne hartuko dituen merkatu-prezioa jartzea proposatzea, eta kontsumo txikiak saritzeko eta kontsumo handiak zigortzeko proposamena egitea.
- 2003. urtetik aurrera, energia eta ura aurrezteko, honako sektore hauei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea: etxe-kontsumoa, industria-sektorea, eraikuntza-sektorea, etab...

HONDAKINAK

- 2006. urterako alde zaureratik tratatu ez diren hondakinen isurketak desagerraraztea. Salbuespena dira hondakin geldoak, tratamendua teknikoki bideraezina denean eta hondakinak murrizten ez dituzten edo giza osasunarentzako edo ingurumenarentzako arriskuak murrizten ez dituzten tratamenduak dituztenak.
- 2004. urterako, herri-lanetan eta azpiegiturretan material birziklatuak erabiltzea sustatzeko politika martxan jartzea.

Hiri-hondakinak

- 2006. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Hondakinen Plana egitea.
- Hiri-hondakinen arriskua murriztea. Horretarako, etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketa gehitu egin behar da; 2006. urtean lortu beharreko helburua pilen, berunezko baterien eta lanpara fluoreszenteen gaikako bilketaren emaitzak, hurrenez hurren, urteko 900, 5.000 eta 130 tona izatea da.
- 2006. urterako, hondakindegietara eraman beharreko hiri-hondakinak guztira sortutako kantitatearen % 75eraino murriztea.
- 2004. urterako 30.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan etxeetako sukalde-olioak gaika biltzea antolatzea.

Hondakin Arriskutsuak

- 2002. urterako Hondakin Arriskutsuen eta sortzen ari diren korronteen Plana onartzea (bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak, eraikuntza eta ekipo elektriko eta elektronikoak).
- 2006. urterako hondakin arriskutsuak sortzea egonkortzea, 2000. urtea erreferentziatzat hartuta.
- 2000ko datuekin alderatuta, 2006rako hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 50 handiagotzea, eta 2012. urterako % 60.
- 2006. urtean 8.400 tona etxetresna elektriko eta elektroniko hondakin biltzea eta tresna bakoitzaren guztizko pisuaren % 70 eta % 80 gutxienez berreskuratzea.
- 2006. urtetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan baja emandako ibilgailu guztiak deskontaminatzen hasia. Horretarako, Europako araudiak finkatutako ehunekoetan, berriz erabiltzea, birziklatzea eta balorizazioa areagotu egin behar dira.

Beste zenbait hondakin

- Industria- eta merkataritza-jatorriko Arriskutsuak ez diren Hondakinen Plana 2003rako onartzea.
- 2003. urterako, osasun-jardueren ondorioz sortutako hondakinak kudeatzea hondakin horiek sortzen dituzten zentro guztietan. Hori kudeaketa aurreratuko printzipioen arabera egingo da.
- 2004. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana egitea.
- 2006. urterako baloriza daitezkeen altzairutegi-zepen % 50 balorizatzea.
- 2006. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzan sortutako hondakinen % 60 birzikla dadin lortzea. Hondakin horietatik arriskutsuak diren hondakinen % 90 behar bezala bereiziko eta kudeatuko dira.
- 2006. urterako ontziei eta ontzi-hondakinei dagokienez, honako helburu hauek:
 - Balorizazioa: % 60-75
 - Birziklapena: pisua % 55-70, beira % 60, papera eta kartoia % 55, metalak % 50, plastikoak % 20.

EPE LUZERAKO KONPROMISOAK. 2007-2020

BALIABIDEAK

- 2010. urterako, energia berriztagarrien erabilera areagotzea, barruko kontsumo gordinaren gutxitzearen gaineko parte-hartzea lortzeko eta bereziki berriztagarrien bidez elektrizitatea lortzeko; hori guztia Europako Batasuneko helburuekin bat eta energiaren euskal estrategian zehazturik dauden balio adierazleekin bat.
- Lurzorua babestea edozein babes-erregimenean eta lurralde-antolaketako tresnak erabiliz, eta horiek onartu eta gehienez bi urteko epean (eta beti 2008. urtea baino lehen) udal-planeamen-
duak egokitzea.
- Biztanle bakoitzeko ur-kontsumoaren gorako joera aldatzea eta, 2002ko datuak oinarri hartuta, 2012. urterako presio handiko zein txikiko ur-horniduran izaten diren galerak % 20 murriztea.

HONDAKINAK

Hiri-hondakinak

- 2012. urterako, per capita hiri-hondakinen sorrera 2001. urteko mailan egonkortzea. Hala ere, epe motzerako helburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Hondakinen Planean zehaztuko dira.
- 2012. urterako hondakindegira eramateko hiri-hondakinak guztira sortutako kantitatearen % 45eraino murriztea eta 2020.era % 30eraino. Zehazki, hondakindegietara eramateko biologikoki degradagarriak diren hiri-hondakinen kopurua (pisuan) 2009. urtean ez da biologikoki degradagarriak diren hiri-hondakinen guztizko kopuruaren % 50 baino gehiago izango eta 2016an ez da % 35 baino gehiago izango.

Hondakin Arriskutsuak

- 2000. urteko datuetan oinarrituta, 2010. urterako hondakin arriskutsuen sorrera % 20 eta 2020.era % 50 murriztea.
- 2000ko datuekin alderatuta, 2012rako hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 60 handiagotzea.

Beste zenbait hondakin

- 2012. urterako baloriza daitezkeen altzairutegi-zepen % 100 balorizatzea.
- 2009. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzan sortutako hondakinen % 60 birzikla dadin lortzea. Hondakin horietatik arriskutsuak diren hondakinen % 90 behar bezala bereiziko eta kudeatuko dira.

Oharra: Hondakin-kantitate guztiak pisuan neurtzen dira.



3. HELMUGA. Natura eta Biodibertsitatea babestea: Sustatu beharreko balioa

Joan den mendeko hirigintzaren eta industriaren ordenarik gabeko garapenaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko ondasun naturalek eta kulturek kalte handiak jasan dituzte. Batez ere ibai nagusien ibarren hondoan egin dira kalte handienak, nahiz eta horrek ez duen galarazi biodibertsitatea gordetzea eta natura eta paisaia aldetik balio handia duten guneak gordetzea.

Naturak ematen dizkio gizarteari bizirauteko behar dituen baliabideak. Horregatik, natur sistemen oreka eta osasuna ezinbestekoak dira biziari eusteko eta gizartearen funtzionamendurako. Eta iritzi horretaz harantzago, natura eta biodibertsitatea berezita baloratu behar dira: beren edertasunarengatik, beren aniztasunarengatik, zientziaren aldetik duten interesarengatik eta espezieen ezaugarri bereziengatik.

Espezie, gune eta paisaia ugari eta askotarikoak izatea, guztiak sistema naturalen ongizatearen adierazle dira. Horregatik, ezinbestekoa da biodibertsitatearen berezko balioa gaur egun dauden arriskuen aurrean babestea.


Hirugarren helmuga honen garapenaren bidez, EAEk **aniztasun biologikoa, sistema naturalen erabilera jasagarria eta paisaien aniztasuna finkatu nahi ditu. Horiek guztiak giza ingurumenaren adierazpen gisa, ondare natural eta kultura komunaren aniztasunaren adierazpen gisa eta lurralde bakoitzaren identitatearen ezaugarri gisa ulertu behar dira.**

◆ HELBURUAK

1. helburua: Ekosistemak, espezieak eta paisaiak kontserbatzea eta babestea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Arriskuak murriztea, funtsezko prozesu ekologikoak eta ekosistemek bilakatzeko duten ahalmenari eusteko.
- Genetikoki eraldatutako organismoak natur ingurunean ugal ez daitezen neurriak hartzea.
- Ekosistema naturalak eta erdinaturalak eta ekosistema eta espezie bereziak sustatzea.
- Arraza eta barietate autoktonoak kontserbatu eta sustatzea.
- Lurraldeko paisaia-baliabideen babesa sustatzea, batez ere, paisaia bereziak eta kalitate- eta natura-osagai handia dutenak sustatuz.



2. helburua: Ekosistemak, espezieak eta paisaiak beren inguru naturalean leheneratzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Arriskuan dauden ekosistemak, flora- eta fauna-espezieak eta paisaiak berreskura daitezen sustatzea.
- Jabari publikoa eta babesteko eta ekosistema flubialak eta horietako hezegunean berreskuratzeko ekintza-lerroak zehaztea.

3. helburua: Biodibertsitatea buruz ikertzea eta sentsibilizatzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Natur baliabideen eta ekosistemen inguruko ikerketen programa koordinatuak garatzea.
- Biodibertsitateari buruzko heziketaren, trebakuntzaren eta sentsibilizazioaren kudeaketa koordinatua programatzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK: INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA 2002-2006

Kontserbazioa eta babesa

- Gure baxurako flotaren arrantza hautatuko ohizko metodei erakundeetatik laguntzea
- 2006. urterako EAEko Natura 2000 Sarean sartutako azalera EAEko azalera osoaren % 20raino zabaltzea.
- 2006. urterako Natura 2000 Sareko gunek babesteko, erabiltzeko eta berritzeko planak egitea.
- 2006. urterako Armañon Aitzgorri-Aratz eta Entzia natur parke izendatzea.
- 2004. urterako EAEko Hezeguneen Lurraldeko Plan Sektoriala eta EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeke Lurraldeko Plan Sektoriala egiten amaitzea eta lehentasuna duten interes naturaleko eremuentzat babes-figurak esleitzea.
- 2006. urterako, desagertzeko arriskuan dauden espezie katalogatu guztientzat kudeaketa-plana ezartzea.
- 2003. urterako Ingurumenaren ikuspegitik sentikorrak diren guneen katalogoa onartzea, 3/1998 Legeak dioena betetzeko.
- 2003. urterako, EAEn Natur Gune Babestuen Katalogoa egitea.
- 2004. urterako EAEko Biodibertsitatearen Behatokiaren Sarea antolatzea.
- 2004. urterako, Genetikoki Eraldatutako Organismoen erabilera itxirako baimena arautzea.
- 2001eko kopuruarekin alderatuta, 2006. urterako, EAEn kanalizatutako ibaien kilometro-kopurua ez handitzea. Bideratzea ezinbestekoa den kasuetan, konpromisoari eusteko, ibaian ingurumenaren aldetik leheneratzeko jarduera osagarriak egingo dira.
- 2006. urterako EAEko korridore ekologikoak egitea.
- 2006. urterako, erabilera publikoko basoen jasangarritasunerako Baso Antolamenduko Planak egitea.

- 2006. urterako, EAEko Naturari eta Biodibertsitateari buruzko datuak eta informazioa biltzeko programa sortzea.
- 2003. urterako EAEko basogintza-sektorearekin bertako basoen kudeaketa jasangarria bermatuko duten arauak adostea.
- 2006. urterako, EAEko basoen kudeaketa jasangarria ziurtatzeko sistema martxan jartzea eta sektore horrekin harremana duten produktuei etiketak jartzea sustatzea.
- 2006. urterako, antolakuntzako dokumentuetan Paisaiaren Europako Konbentzioko printzipioak kontuan hartzea.
- 2003. urterako elkarteko habitat interesgarrien (lehentasuna duten habitatak eta interesa duten habitatak) kartografia aztertu eta egitea, bai eta 92/43 Arztearauaren eranskinetan ez dauden eta EAerentzat interesa duten habitatak ere.
- 2003rako EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoa egitea.
- 2006. urterako EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan jasotako guneak babesteko eta berritzeko berriarazko planak egitea. Eta horiek lurralde-antolaketan sartzeko bitarteko egokiak jartzea.
- 2006. urterako kolonizazio- eta inbasio-ahalmen handia duten fauna eta florako espezie exotikoak kudeatzeko planak egitea.
- 2006. urterako EAEko natur egitura kartografikoki definituko duen arau-esparrua zehaztea, babes-figura eta lotura-korridore guztiak hor biltzeko moduan.

Leheneratzea

- 2004. urterako obra eta azpiegitura-lanak egiteko eta berriz landareztatzeko Ingurumeneko Jardunbide Onen Kodea zehaztea.
- Ingurumenaren aldetik intzidentzia handia duten paisaia degradatuak (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatzaritzako guneak, higatzeko arrisku handia duten guneak) berreskuratzeko urteko jarduerari eustea.
- Habitaten Arztearauko I. eta II. eranskinetan lehentasuna duten guneak (hezeguneak, ibaiertzak, dunak, korridore ekologikoak eta abar) berreskuratzeko urteko jarduerari eustea.

Ikerketa eta sentsibilizazioa

- 2004. urterako, biodibertsitatearekin (agrodibertsitatea barne), babestutako guneekin, florarekin eta faunarekin harremana duten ikerketa-programa prestatzea.
- 2004. urterako biodibertsitateari buruzko Heziketarako, Hezkuntzarako eta Sentsibilizaziorako Plan Estrategikoa lantzea.
- 2004. urterako Euskal Herriko ornogabeak inbentariatu eta katalogatzeko ikerketak martxan jartzea.
- 2004. urterako landa-eremuan jasangarritasuna lortzeko jardunbide egokien ikerketa-programa aplikatua (teknologikoa, soziala, planifikatzailea, etab.) garatzea.



EPE LUZERAKO KONPROMISOAK. 2007-2020

Kontserbazioa eta babesa

- 2012. urterako, zuzeneko errentagarritasunik ez duten edo gutxienez 100 urtean mozkin ekonomikorik emango ez duten bertako basoetarako sari konpensatzaileak emateko araubidea ezartzea. Sari horiek gizartearen eta ekologiaren arloetan izandako interesaren ordainetan emango dira.
- 2012. urterako, 2001eko datuekin alderatuta, bertako basoaren azalera % 10 handitzea eta 2020. urterako % 20 handitzea.
- 2012. urterako, nekazaritzako lurzoruen aprobetxamendu intentsiboa % 15koa izatea eta 2020. urterako % 25koa izatea.

Leheneratzea

- Ibilguak berreskuratzeko programarako urteko inbertsioa aurreko urtekoarekiko % 15 handiagotzea, 2012. urterako 15 km ibaiertz berreskuratu ahal izateko.

4. HELMUGA. Lurraldeko Oreka eta Mugikortasuna: Ikuspegi komuna

Hainbat hamarkadatan, EAEko eta Europako gainerako eskualdeetako hazkunde ekonomikoa oso lotuta egon zen garraioaren hazkundearekin eta ingurumenean eta giza osasunean sortzen zituen albo-eragin negatiboak aintzat hartzen ez zituen lurralde-ereduaren garapenarekin.

Gaur egungo garraio-politiken garapenaren arazorik larriena hauxe da: geroz eta handiagoa den mugikortasun-eskariari erantzuteko premia. Horrek areagotu egiten du pilaketa, segurtasuna arriskuan jartzen du eta narriatu egiten du ingurumena. Erronka garraioaren hazkundera eta jarduera ekonomikoa pixkanaka, mugikortasunerako eta irisgarritasunerako eskubideak murriztu gabe, bereiztean datza. Hori, garraio-motak sustatuz, garraio-bide kolektiboak eragingarritasun gehiagorekin erabilia lor daiteke. Mugikortasuna pertsonak eta gauzak mugitzeko edo batetik bestera eramateko ahalmena da, eta lehentasuna duen beharra da. Gainera, lurralde-, ekonomia-, kultur eta gizarte-ereduen araberako garraio-eskaera sortzen du. Ezinbestekoa da mugikortasunaren beharrak murriztea, eta ez dira babestu behar motorizatuen eskaria areagotzea eragingo dute hirigintzako jarduera eta erabilerak.

Bestetik, lurraldearen garapen orekatua eta sozialki kohesionatua lortzea beharrezkoa da. Horren barruan, jarduera ekonomikoak lehiakorra izaten jarraitu behar du eta nekazaritzako, hiriko eta itsasertzeko komunitateen bideragarritasunak bermaturik egon behar du. Hirien sistema koherentea bultzatuko duen lurralde-eredua sortzen lagundu behar da. Sistema horren bidez, euskal herritarrek hornidura, zerbitzuak eta berrikuntzak eskura izateko aukera izan behar dute. Era berean, hiriek herritarren eguneroko bizitzarako lurralde erakargarri bihurtu beharko dute.

EAEko dentsitate demografikoa handia denez eta azalera txikia denez, nekazaritzako eta itsasertzeko guzuek balio estrategikoa dute, eta lehen sektoreko jarduerak ekarpen gehiago egiten dituzte barne produktu gordinak baino. EAEko nekazaritzako biztanleak gutxi diren arren eta ekonomiari dagokionez nekazaritzako BPGari egiten dion ekarpena urria den arren, ez da egia ehunka urtetan nekazaritzako biztanleek egindako natur baliabide berriztagarrien erabilerak eta ustiapenak gaur egun babestu beharreko ondasun gisa baloratzen dugun paisaia aldatu egin zutela. Beraz, ezin dugu ahaztu nekazaritzako biztanleek beren jarduerarekin ondare hori era jasangarrian mantentzen jarraitu behar dutela.

Nekazaritzako eta kostaldeko guneak ekonomiako, aisialdiko, zerbitzuetako eta ekipamenduko jardueren euskarri dira eta jende asko aritzen da gune horietan. Halaber, natur, paisaia- eta kultur ondare garrantzitsua da eta, neurri handi batean, hiriguneak geroz eta uniformeagoak direla eta, gizartearen identitatearen zeinuen babesleku dira. Ezinbestekoa da gune horiek integratuak eta koherenteak izatea eta funtzio ugari dituela kontuan hartzea. Horrez gain, gune horien jardueren helburuak aberastasuna sortzea eta kalitatea ekoiztea eta ingurumena babestea eta lurraldea kudeatzea dira.

Laburbilduz, helmuga honen eta helmuga honekin lotutako helburuen xedea hauxe da: **lurralde orekatua eta hurbilerrazagoa finkatzea; lurralde horrek interes orokorreko gizartearen eta ekonomiaren arloko jardueren bideragarritasuna ahalbidetu behar du eta, aldi berean, nekazaritzako, hiriko eta itsasertzeko guneen ondarea, aniztasuna, aberastasuna eta natur eta kultur erakargarritasuna gordeko duen lurraldea finkatu nahi da.**

◆ HELBURUAK

1. helburua: Lurraldearen erabilera jasangarria lortzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Lekuaren banaketa eta lurraldeko jarduera sozioekonomikoen banaketa orekatua hobetzea.
- Finkatutako hiri berri eta birgai dadin sustatzea.
- Hiriko guneen diseinu erakargarria eta bizi-kalitatea hobe daitezen sustatzea.
- Landa- eta natur eremuei balioa ematea sustatzea eta hortik lortutako onurez bertakoek gozatzea.
- Nekazaritzako sektorean ekoizpen integratua sustatzea.
- Kostaldeko eta itsasertzeko gunek era integralean eta jasangarrian kudeatzea.
- Hirigintzako plangintza lurralde-antolamenduko tresnen edukien helburuetara eta jasangarritasunaren irizpideetara egokitzea.
- Natur elementuak hiri-paisaian txertatzea sustatzea, horien balio estetiko hobetzeko, aniztasun biologikoa areagotzeko eta klima-konforta areagotuz ingurumen-kalitatea hobetzen lagunduko duten aukerak (itzal-eremuak, modulazio termikoa, hezetasuna gehitzea, airearen zirkulazioa, etab) izateko, zaratak leuntzeko, aisialdirako beste aukera batzuk sortzeko, etab.

2. helburua: Hainbat erabilera eta jardueratarako (jarduera ekonomikoen etxebizitzetarako erabilera eta aisialdirako erabilera) garapen jasangarria izaten utziko duen irisgarritasuna lortzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Garraibideen banaketa modala berriro bideratzea; horretarako garraio kolektiboak eta motorizatuak ez direnak sustatu behar dira.
- Mugikortasunaren beharrak murriztea; horretarako, ez dira babestu behar motorizatuen eskaria areagotzea eragingo duten hirigintzako jarduerak eta erabilerak.
- Energiaren eta ingurumenaren eragingarritasun handiagoa lortzeko, bidaiarien eta merkantzien garraiorako modalitate arteko garapena sustatzea.
- Aukera dagoen jardueretan, egutegiaren eta ordutegiaren malgutasuna sustatzea.

3. helburua: Garapen ekonomikoa eta bitarteko motorizatuen bidezko garraio-eskaera orokorra bata bestearengandik bereiztea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Azpiegituren erabileraren tarifen printzipiora gerturatzea eta garraioaren kanpoko kostuak kontuan hartzea (kostu marjinalak).
- Inpaktu txikiena duten garraiatzeko moduak sustatzea tasa eta/edo prezio publikoen politikaren bidez.
- Motorrik gabeko garraioak (oinezkoak eta bizikletak) garraibidetzat hartzea eta, alderdi horri dagokionean, motordun garraioekin parekatzea.
- Garraiorako Sistema Adimendunak erabiltzea, guztizko eskaera gutxitzeko eta eragingarriagoa izateko.
- Ingurumena gehiago errespetatzen duten garraibideetarako azpiegiturretan inbertitzeari lehentasuna ematea.

Azken bi helburu horiek hauek dira: batetik, errepidez egiten den garraioaren hazkundeari eustea eta, bestetik, ingurumenari kalte gutxiago egiten dioten garraio-moten eskaintzarentzat mugikortasun-eskaria bana dadin lortzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK: INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA 2002-2006

Lurraldearen erabilera jasangarria

- Urtero, gune degradatuak birgaitzeko eta leheneratzeko jardueri eustea.
- Ingurumeneko Esparru Programa hau onartu ondoren, bertan jasotako jasangarritasun-helburuak eta konpromisoak udalerrietako hirigintza-planen eta lurralde-antolamenduko beste bitarteko batzuen berrikuspenetan txertatzea.
- Lurralde Plan Partzialak onartu bitartean Lurralde Antolamendu Sektorialen onarpena motel-tzea, Lurraldearen Antolamendu Legeak eta Lurralde Antolamenduko Arteztarauek lurralde-antolaketa dagokionez aurreikusten dutena desitxura ez dadin.
- 2004. urterako, harrobia ustiatzen dutenek eratu beharreko abalen bidez, sortutako ingurumen-inpaktu guztiak zuzen daitezzen bermatzea eta berreskuratze-planak erabat egin daitezzen behartzea.
- 2004. urtea baino lehen, gaur egun dauden harrobi guztiak ustiatzeko proiektuak onartzea, edozein muga ekiditeko kontrolerako baliabidea izateko.
- 2005. urtea baino lehen, EAeko 15 Gune Funtzionalen Lurraldeko Plan Partzialak behin betiko onartzea, horietako zehaztapenak berrikusi eta moldatu behar direnean Ingurumeneko Esparru Programa honetako jasangarritasun-helburu eta -irizpideetara egokituz.
- 2005. urterako honako Lurralde Plan Sektorialak onartzea, horietako zehaztapenen alde aurretiko azterketa, berrikuspena eta moldaketa egiteko Ingurumeneko Esparru Programa honetako jasangarritasun-helburu eta -irizpideetara egokituz:
 - Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamendu Komertzialetarako Lurzoruaren Sorrera Publiko-rako Plana,
 - Etxebizitzaren Sustapen Publikoa,
 - Kultur Ondarea,
 - Basogintzarena; hemen nekazaritzarako azalerari eusteko helburua sartzeko da,
 - Euskadiko Baliabide Turistikoen Antolamendua,
 - Portuak.
- 2006. urterako, nekazaritza ekologikorako erabilitako lurren azalera 300 ha izatea lortzea.
- 2006. urterako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAeko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea, banaka edo eskualdeka. (1. Baldintzan ere jasota dago konpromiso hau)
- 2006. urterako, hiriguneak berritzeko jarduerak gauzatzea, industria-aurriak suntsitzea eta 75 hektarea berreskuratzea.
- 2006. urterako, Hirigune Historikoak Birgaitzeko Plan Berezi guztiak behin betiko onartzea.
- 2006. urterako, nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoa duten lurrak 55.000 ha izatea (1. Helmugan ere jasota dago konpromiso hau).

Mugikortasun jasangarria

- Bide-sareak sortutako poluzioa murrizten laguntzea, Europako Batasunak emisioentzako finantziatutako mugak kontuan hartuta.
- Garraio pribatua erabiltzen duten bidaiariek garraio publikoa erabiltzea lortzea, etorkizuneko Garraio Jasangarriaren Planeko helburua lortzeko.
- 2003. urterako EAeko Bizikletentzako Bideen Plan Gidatzaile bat egitea.
- 2003. urterako, EAEn motorrik gabeko garraioa sustatzeko estrategia osoa diseinatu eta martxan jartzea.
- 2004. urterako, hirietako eta hiri-inguruetako bideak oinezkoentzat eta txirrindularientzat egokitzeko azterketa egitea.
- 2006. urterako, EAE osoan garraio publiko guztientzat informazio leihatila bakarra jartzea eta txartel bakarra egotea sustatzea.
- 2006. urterako, ingurumena gehiago errespetatzen duten garraio-moten azpiegiturentzat EAEn egindako inbertsio publikoen eta errepideetako azpiegitura berriak egiteko inbertsioen arteko proportzioa, 2001ekoekin alderatuta, % 10 handiago izatea.
- 2006. urterako, garraioen azpiegituretako eta zerbitzuetako Lurraldeko Plan Sektorialak berrikustea, Ingurumeneko Esparru Programaren aztertarauetara eta helburuetara egokitzeko.
- 2006. urterako, 2001eko datuekin alderatuta, EAeko hiriguneetako bidaiarien garraio guztiarekin alderatuta, garraio kolektiboa % 10 gehiago erabiltzea.

EPE LUZERAKO KONPROMISOAK. 2007-2020**Lurraldearen erabilera jasangarria**

- Landa-eremuetako euskal biztanleriak 2012. urtean 1999. urteko mailari eusteko behar diren bihurtzekoak, ekonomikoak eta sozialak, jartzea.
- 2012. urterako, nekazaritza ekologikorako erabilitako lurren azalera 600 ha izatea lortzea eta 2020. urterako 2.000 ha izatea.
- 2020. urterako, nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoa duten lurrak 100.000 ha izatea (1. helmugan ere jasota dago konpromiso hau).

Mugikortasun jasangarria

- Errepideko garraioa gutxiago erabil dadin lortzea, trenbide, ubide nabigagarri eta bidaiarien garraio publikoa sustatuz, 2012ko errepide-garraioaren kuota 2001ekoa baino handiago izan ez dadin.
- 2012. urterako, konexiogune nagusietan ekipamendu intermodalak garatzea.
- 2012. urterako, ingurumena gehiago errespetatzen duten garraio-moten azpiegiturentzat EAEn egindako inbertsio publikoen eta errepideetako azpiegitura berriak egiteko inbertsioen arteko proportzioa, 2001ekoekin alderatuta, % 20 handiago izatea.

5. HELMUGA. Klima-aldaketaren eragina mugatzea

Klima-aldaketa arazo orokorra da eta diagnostikoan lehenetsua duten ingurumen-gaien artean dago. Zientziaren alorrean klima-aldaketa gertatzen ari dela aho batez onartua dute eta, neurria handi batean, giza jarduerak sortzen dituen berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa areagotu izanak eragindakoa da. Presioak sortzeari eta ingurumenean sortutako inpaktuei dagokienez joerak berez zuzentzeko itxaropenak urriak dira.

Beraz, ezinbestekoa da neurriak hartzea, eta EAEk *Kiotoko protokoloan* nazioarteko komunitateak finkatutako helburuak lortzen lagundu behar du. Horretarako finkatu da helmuga hau: **Atmosfera, berotegi-efektua eragiten duten gasen kontzentrazioa ez dadila izan Lurreko kliman berezkoak ez diren aldaketak sortzeko adinakoa.**

Ibilgailuen, zentral elektrikoek, etxebizitzetako berokuntza-sistemen eta abarren erregai fosilak erretzea da berotegi-efektua eragiten duten gas-isuriak eragile nagusia. Alderantziz, basoetan karbonoa hartuz atmosferaren CO₂-aren (berotegi-efektua sortzen duen gas nagusia) kontzentrazioa txikiagotzeko aukera planteatzen da.

Beraz, berotegi-efektuko gasen kontrolean eta karbono-hustubideak gehituz gas horien kontzentrazioak murriztean eragina duten bi helburu formulatu dira.

EAEen CO₂-aren (berotegi-efektua sortzen duen gas nagusia) emisioak eragiten dituztenak garraioa, industria eta eraikuntza eta energia transformatzeko sektorea dira.

◆ HELBURUAK

1. helburua: 2020. urterako, atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen emisioak mugatzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Energia garbietan oinarritzen den energia primarioaren hornidura sustatzea.
- Produkzio- eta kontsumo-puntuak gerturatu eta jarduera-sektore guztietan energia-eraginkortasuna hobetzea.
- Sektore guztietan energia-aurrekzia sustatzea.
- CO₂ gutxiago isurtzen duten garraiatzeko moduak sustatzea*.
- Mugitzeko beharra murriztea*.
- Erregai fosilen ordez erregai berriztagarriak eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dituzten erregai fosilak erabil daitezkeen sustatzea.

* 4. helmuga erreplikatu egiten da.

2. helburua: Karbono-hustubideak gehitzea.

Helburu hori honako ekintza hauetan gauzatzen da:

- Karbono-hustubideei buruzko ikerketa sustatzea.
- Karbonoa ahalik eta gehien eta modu egonkorrean xurgatzeko silbikultura sustatzea.
- Zuraren erabilera iraunkorrak sustatzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK: INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA 2002-2006

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASAK ISURTzea

Energiaren alorreko konpromisoak:

- Energia eragingarriagoak eta ingurumen-inpaktu gutxiago dutenak sortzeko instalazio zentralak sustatzea, pixkanaka gehiago poluitzen duten zentral termiko tradizionalen (ikatz, fuel-olioa erabiltzen dutenean) ordez erabiltzeko
- Energiaren eragingarritasuna sustatzea, oro har, energiaren intentsitatea murriz dadin lortzeko, Europako Batasunak finkatutako helburuen eta arteztarauen arabera eta energiaren euskal estrategiaren zehaztapenen arabera.

Garraioaren alorreko konpromisoak: Ikus 4. helmuga.

- Errepidez egindako garraioan, ohizko erregaien ordez berriztagarriak edo garbiagoak erabil daitezzen sustatzea, Europako Batasuneko Arteztarauen eta energiaren euskal estrategiaren helburuen arabera.

Industriaren alorreko konpromisoak: Ikus 1. eta 2. helmugak.

Eraikuntzaren sektorean eragingarritasun energetikoaren konpromisoak:

- 2004. urterako, eraikuntza berrietan edo Administrazio Publikoaren eraikinetan instalazio fotovoltaikoak jartzeko (eta 2006. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren gainerako eraikinetan jartzeko) bideragarritasun-azterketak egitea eta energiaren euskal strategiaren helburuen arabera martxan jartzeko azterketak egitea.
- 2004. urtetik aurrera, sustapen publikoko eraikuntza/etxebizitza guztiek eragingarritasun energetikoaren ziurtagiria izango dute.



- 2006. urtea baino lehen edo Europako Batasunak aipatzen duen eperako, etxebizitzaren eta zerbitzuen sektoreko eraikuntza berrietan eta birgaituetan ur bero sanitarioa sortzeko eguzki-energia termikoa erabiltzeko behar diren ekipoa instalatzeko arautegi teknikoak sortzea.
- Sistema adimendunak (domotikoak) sustatzea, eraikin berrietan energia-aurrezkoa areagotzeko.

Beste konpromiso batzuk:

- Energia-aurrezkoa sustatuko duen politika fiskala ezartzea.
- 2004. urterako, klima-aldaketaren inguruko helburuak hiri-hondakinak kudeatzeko politikan eta nekazaritza-politikan kontuan hartzea.

KARBONO-HUSTUBIDEAK

- 2006. urterako, EAEko basogintza-zurgintzaren sektorearen azterketa egitea, karbonoa ahalik eta gehien eta modu egonkorrean xurgatzen duen silbikultura zein den zehazteko eta zuraren erabilera iraunkorrak sustatzeko.
- Baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria duen zuraren erabilera iraunkorrak sustatzeko kanpainak egitea.

EPE LUZERAKO KONPROMISOAK. 2007-2020

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASAK ISURTzea

Energiaren alorreko konpromisoak:

- 2012. urterako, Kioton berotegi-efektua sortzen duten gasen emisioaren inguruan finkatutako helburuak bete daitezen laguntzea.
- 2010. urterako, energia berriztagarrien erabilera areagotzea, barruko kontsumo gordinaren gutxitzearen gaineko parte-hartzea lortzeko eta bereziki berriztagarrien bidez elektrizitatea lortzeko; hori guztia Europako Batasuneko helburuekin bat eta energiaren euskal estrategian zehazturik dauden balio adierazleekin bat.

Garraioaren alorreko konpromisoak: Ikus 4. helmuga.

Industriaren alorreko konpromisoak: Ikus 1. eta 2. helmugak.

Eraikuntzaren sektorean eragingarritasun energetikoaren konpromisoak:

- 2012. urterako, eraikuntza berri eta birgaitze-proiektu guztiek eragingarritasun energetikoaren ziurtagiria izatea.

KARBONO-HUSTUBIDEAK

- 2006. urtetik aurrera, eraikin publikoak egitean baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria duen zura erabiltzea positiboki diskriminatzea.

5



Euskal Autonomia Erkidegoan
Jasangarritasuna Lortzeko
Bidean aurrera Egiteko behar
diren Baldintzak



5

Euskal Autonomia Erkidegoan Jasangarritasuna Lortzeko Bidean aurrera Egiteko behar diren Baldintzak

Hainbat aldaketa egin beharko dira garapen jasangarrira heltzeko. Politika publikoak formulatzeko eta aplikatzeko garaian hobetu egin behar dugu, ekonomiaren oparotasuna, lanpostuen hazkundera, bizi-kalitatea eta ingurumen garbi eta osasuntsua batera izateko aukera edukitzeko.

Ingurumeneko Esparru Programa ekonomia- eta gizarte-gaietan martxan dauden politika batzuk hobetzeko, portaerako hainbat jarraibide aldatzeko eta Administrazioak, esparru argiarekin eta epe luzera begira, erantzun koordinatuak emateko aukera da. Horretarako, jasangarritasunaren hiru aldeak orekaturik kudeatuko dituen lider eragingarriaren alde egitea beharrezkoa da. Administrazioaren ekintzek eragin garrantzitsua izan behar dute agente sozioekonomikoen ekintzetan.

Azken batean, beharrezkoa da joera politikoaren eragingarritasuna hobetzea eta garapen jasangarria errazteko baldintzak finkatzea. Ondoren, jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko beharrezkoak diren bost baldintza aipatzen dira:

1. **BALDINTZA.** Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan kontuan hartzea

Amsterdamgo Ituneko 6. artikulua arabera, ingurumena Batasunaren politika eta jardura guztietan hartu behar da kontuan. Integrazio sektoriala tartean dauden interesak eta orekak hobeto ezagutzeko datza, eta helburua aldean arteko adostasuna lortzea da. Ingurumeneko Esparru Programa politiken ikuspegi integratuaren aldeko eta instituzioen jarduerak hobeto koordinatzearen aldeko apustua da.

Praktikan, helburu hori honakoaren bidez lor daiteke: garapen jasangarria eztabaida politikoa instituzionalizatuz, ingurumenaren integrazioaren eta Administrazioaren sailen arteko koordinazioaren bidez, paper legegilea eta autorregulazioa sustatzen duten baliabideak erabiliz, enpresen komunitatea inplikaturik eta, azkenik, herri mailan jarduteko aukera sustatuz, hiritarren parte-hartzea sistematizatzearen bidez. Azkenik, erantzuteko gaitasuna zenbaterainokoa den etengabe jakin ahal izateko, politikak neurtzeko eta ebaluatzeko sistema martxan jartzea beharrezkoa izango da.

Azken batean, garapen jasangarriak sektore eta politika guztien helburu nagusi izan beharko du.

◆ HELBURUAK

1. Jarduera politikoaren buruzagitza eta koherentzia hobetzea.
2. Ingurumena politika sektorialetan (industrian, energian, nekazaritzan, garraioan, kontsumoan, turismoan eta abarretan) integratzeko estrategiak garatzea.
3. Administrazioaren ereduzko jarrera sustatzea.
4. Administrazioaren planen eta programen ingurumen-ebaluazioa sustatzea.
5. Administrazio Publikoaren erosketetan ingurumen-irizpideak sar daitezen sustatzea.
6. Ingurumen-adierazleak ekonomia-jardueretarako eta etxebizitzetarako lurzoruak eskuratzeko politiketan eta hirigintza-planetan kontuan hartzea.
7. EAEko ingurumen-sektorea sustatzea, arlo honetako enpresak sortzen lagunduko duen lege-esparruaren bidez.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

Politikak:

- 2003. urterako, administrazioen arteko koordinaziorako foroa sortzea, udalerrri mailan jasangarritasuna sustatzeko (Tokiko Agenda 21en Euskal Batzordea).
- 2003. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorreko 1A eranskinarekin lotura duten planek eta programek jarraitu beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratua arautzen duen Dekretua onartzea.
- 2003. urtetik aurrera Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Mankomunitateek eta Udalek egingo dituzten plan eta programa berrietan Ingurumeneko Esparru Programa honetan zehaztutako jasangarritasun-irizpideak eta helburuak sartzeko, horien baimenak emateko prozesuan horretarako araututako berariazko prozedurak eginez eta planteamendu eta diseinuaren lehen urratsetatik hasita.
- 2006. urterako, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek eta, 2012. urterako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek ingurumeneko arduradun teknikoa, udal mailan edo mankomunitate mailan, izan dezaten lortzea.
- 2006. urterako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea, banaka edo eskualdeka.
- 2006. urterako, ingurumenaren alorreko aurrekontu publikoen partiden analisia sistematizatzea, urtean behin ingurumeneko gastu/inbertsio publikoen txostenak egiteko.

Administrazioaren jarrera eredugarria

- 2003. urterako, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien egoitza nagusien eraikinetarako eta ibilgailuetarako jarduera-plana izango duen ingurumen-ikuskaritza egitea.
- 2004. urterako, Administrazioaren eraikin berri guztiek energia-eragingarritasuneko egiaztagiria izan beharko dute eta, 2006. urtetik aurrera, arkitektura bioklimatikoaren, materialen analisiaren eta abarren irizpideak.
- 2012. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udalak, sozietateak eta erakunde publikoak) % 50ek ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria izan beharko dute.

2. BALDINTZA. Indarrean dauden legeak eta beren aplikazioa hobetzea

Ingurumenaren inguruko arau asko izateak, konplexutasun juridikoak eta administrazioiko izapideek eta eragileek arau horiek ez ezagutzeak legeak behar bezala aplikatzeko garaian oztopo izan dira. Horrez gain, aplikatzeko garaian kontrol eragingarria egiteko Administrazioak baliabide gehiago behar dituela antzeman da.

Ingurumeneko Esparru Programak indarrean dagoen lege-esparrua etengabe egokitzen lagunduko du. Lege-esparru hori prebentzioko eta babeserako estandar iraunkorretan aintzat hartu behar da. Estandar horiek ezagutza zientifikoa eta ingurumen-politiken helburuak bete izana oinarri hartuta eguneratu behar dira. Estandar horien eragingarritasuna beren aplikazioaren araberkoa da eta eragingarritasuna izateko lege-esparruan izan daitezkeen aldaketen ebaluazioko txostenak behar dira. Horretarako, estandarren definizioan eta aplikazioan geldialdia ez izateko etengabe hobetzeko zikloa jarri behar da martxan.

Ingurumeneko Esparru Programaren kudeaketan ikuspegi juridikotik garatu beharreko aldeak honakoak dira: lege-esparrua berrikustea eta ingurumen-kalitatearen eta -babesaren estandarrak etengabe egokitzea, ikuspegi globalak eta integratuak sustatzea, jarduerak baimentzeko araudiak erraztea, jendeak parte hartzeko bideak hobetzea, ikuskatzeko baliabideak sustatzea, analisietarako eta akreditaziorako laborategiak erabiltzea, administrazioak eta epaileek arau-hausleak zigortzea, sistema kontrolatzea eta sistemari segimendua egitea eta, azkenik, txostenak argitaratzea. Ingurumenarekin zerikusia duen administrazio-izapideak erraztea eta aplikatzea nabarmentzea merezi du.

Legea eta bere aplikazioa hobetzeko kudeaketa-eredu hori ekonomiaren eta merkatuaren alorreko baliabideen erabilerarekin, borondatezko akordioekin, informazioarekin eta jendearen parte-hartzearekin elkartu beharko da, hartutako neurriak onar daitezzen errazteko.

◆ HELBURUAK

1. Ingurumen-arauak errazago aplikatzeko araudien garapena sustatzea eta garbiago xedatzea eta erraztea.
2. Ingurumen-legeria heda dadin sustatzea (testu osoak eta eskuliburu praktikoak).
3. Legeria aplikatzeak (eta ez aplikatzeak) Administrazioaren planetan duen kostuaren azterketa egitea.
4. Prebentziorako eta legea bete dadin babesteko borondatezko baliabideak sustatzea (borondatezko hitzarmenak).
5. Fiskaltza eta EAeko polizia ingurumeneko gaitan gehiago sar dadin eta horretan espezializa dadin sustatzea.
6. Legeriaren aplikazioaren kontrola sustatzea, EMAS ingurumena kudeatzeko sistemaren bidez.
7. Ingurumen-ebaluazio integratuaren kontzeptuak eragile publiko eta pribatuetan sartzea.
8. Jendearen parte hartzea errazteko administrazio-bitartekoak areagotzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

- 2006. urterako ingurumenean eragina duten jarduerak sortutako inpaktuak prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratua martxan jartzea. Sistema horrek honakoak barne hartuko ditu: alde batetik, inguruneetara (airera, uretara eta lurrera) egindako emisioak mugatzea eta, bestetik, administrazio-izapideak erraztea. Horretarako administrazioan solaskide bakarra eta aplikatu beharreko ingurumen-legeriaren gaineko baimen bateratua (lehiatila bakarra) jarriko dira.
- Ingurumenaren babesean, kudeaketan eta kontrolean zerikusia duten administrazio-atalei baliabide ekonomiko, baliabide tekniko eta giza baliabide gehiago esleitzea, eta ingurumen-eskumenak dituzten administrazio-atalen artean lankidetzaz sustatzea..
- Lurralde-antolamenduko tresnetan eta hirigintza-planetan, lurraldeetan ingurumen-azpiegiturarako (saneamendurako, arazketarako, hondakin-tratamendurako, etab.) lurzoru-aurreikuspenak egitea.
- Oraingo araudiak egokitzea baimendutako erabileretan material birziklatuak erabiltzeko eta merkatuan jartzeko aukera emateko.
- 2003. urterako, hiru Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin osatutako batzordea sortzea, etxebizitzetarako eta industriarako hiri-lurzoru gisa sailkatutakoetan egindako jardueretako araudi berria sortzeko proposamena aurrera eramateko.
- 2003. urtean Uraren Euskal Administrazioaren Lege arau-emailea onartzea.
- Zaintzarako eta kontrolerako plan eragingarria eta koordinatua martxan jartzea, ingurumeneko arau-hausteei aurrea hartzeko eta aurre egiteko. 2003-2007/2007-2012 programa.
- 2003. urtean EAEko Hirigintza Legea onartzea.
- 2004. urterako, ETEei ingurumen-legeriaren aldetik laguntza emateko programak martxan jartzea.
- 2004. urterako, ingurumenean garrantzia duten azpisektore nagusiekin borondatezko hitzarmenak sinatuko dira, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Aztertarauaren arabera (IPPC 96/61 Arztearaua).
- 2004. urterako ingurumen-inpaktuaren azterketak egiteko ekipoen eta enpresen homologazioa arautzea.
- 2003. urtetik aurrera, ingurumen-informazioa jendaurrean jartzen denean, berehala kopiatzeko bitartekoak jarriko dira, eta ahal denean bitarteko informatiko eta/edo elektronikoen bidez ere zabalduko da. Horrez gain, agintari publikoei beraiek edo bere izenean beste erakunde batek, erraz erreproduzitzeko moduko eran eta formatutan eta bitarteko elektronikoz eskuratzeko moduan, ingurumen-informazio guztia gordetzeko ahaleginak egin ditzatela eskatuko zaie.
- 2003. urtetik aurrera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari dagokion araudia garatuko da, hainbat jardueretako ingurumen-inpaktuen ebaluazioaren hedadurari eta helburuei buruzko ingurumen-organismoaren arau teknikoak hedatzeko.
- 2003tik aurrera, ingurumenaren alorrean zuzenbidea aplikatzearen inguruko txostenak urtero prestatzea.
- 2004. urterako, IPPC enpresentzat Ingurumenaren Adierazpena praktikan jartzea.
- 2006. urterako, EAEko 50 enpresak EMAS ziurtagiria izango dute.
- 2012. urterako, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek ingurumenaren alorreko ordentza izango dute.

3. BALDINTZA. Merkatuak Ingurumenaren alde lan egin dezan Bultzatzea

Garapen jasagarriak Administrazioak, enpresek eta hiritarrek elkarrekin jarduteko eskatzen du, eta helburu komuna bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea da.

Sustapen Ekonomikorako Erakundeen arteko Planak garapen ekonomiko jasagarrian eta epe luzerako lanpostuak sortzean oinarritutako eskualde mailako lehiakortasun-eredua proposatzen du. Horretarako, besteak beste, ingurua osasuntsuagoa izan dadin lagundu behar du eta ingurumena enpresako lehiakortasun-faktore gisa hartu behar du kontuan.

Gaur egungo produkzio- eta kontsumo-ereduaren joeraren alde batzuk ez dira bateragarriak jasangarritasunaren alde batzuekin. Joera horiek zuzentzeko irtenbideak bilatzea hurrengo hamarkadan euskal enpresentzako aukera polita izan daiteke. Aukera batzuk honakoen ingurukoak dira: berrikuntza, ekoezgarritasuna, eragile sozioekonomikoekin elkarriketa eta talde-lana, kontsumitzaileari informazioa, esparru administratiboaren hobekuntza eta ingurumen-kostuak produktuetan islatzen lagunduko duten merkatuko bitartekoak.

Zenbait kasutan, enpresaren sektorea aurrea hartzen ari da produkzioarekin lotura duten mekanismo ekologiko berriak (esate baterako, ekodiseinua eta ekoezgarritasuna) proposatzeko garaian, hau da, baliabideen erabilera produktibitatea hobetzea berrikuntzen eta enpresan ikasteko ahalmenaren bidez.

Azken batean, produkzio- eta kontsumo-eredu jasagarriagoari begira bideratzeak materialen fluxua gutxiagotu egiten du, zerbitzuen garrantzia areagotu egiten du eta giza baliabideen eskaera igo egiten du (horrela lanpostu gehiago sortzen dira).

◆ HELBURUAK

1. Irizpide ekologikoak kontuan hartuko dituen erosketa publikoko politika sustatzea.
2. Ingurumen-helmuga berrietarantz zuzendutako zerga-politika martxan jartzea.
3. Enpresekin eta enpresa-erakundeekin batera lan egitea.
4. Ingurumen-araudia gaindi dadin sustatzen duten diru-laguntzak ematea.
5. Ingurumen-portaerarengatik enpresei sariak emateko sistema martxan jar dadin sustatzea.
6. Ingurumen-arduraren bidez ingurumen-arriskuak dituzten prozesuak segurta daitezen bultzatzea.
7. Ingurumeneko Kudeaketa Sistemak, ingurumen-txostenak eta abar sustatzea.
8. EAEn, ingurumena errespetatzen duten produktuaren aldeko pizgarriak bultzatuko dituen produktuaren gaineko estrategia integratua finkatzea.
9. Etiketa ekologikoaren eragingarritasuna erabili eta ebalua dadin sustatzea.
10. Ingurumen-praktika hobeen trukea bultzatzea.
11. Sektore-politika guztietan berrikuntzaren eta eragingarritasunaren inguruko irizpideak hobetzea.
12. Ingurumen-arazoak ebazteko garaian, finantza-baliabideak kontuan hartzea (inbertsio-fondo lehentasunezko kredituak eta ingurumen-arriskuetaarako kapitala eta abar).
13. Erosketen zehazpenetara ingurumen-faktoreak biltzen dituen sektore pribatuaren ekimenak sustatzea.



HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

- 2003. urterako, baliabide fiskal berdeen analisia egitea eta etengabe Euskal Autonomia Erkidegoan martxan jartzeko aukerak aztertzea.
- 2004. urterako, diru-laguntzen programak berrikusi egingo dira, politika jasangarriarekin kontraesanik izan ez dadin. Kontraesan horiek ingurumenean eragin negatibo nabarmenak sorraz ditzaketen jarduerak eta/edo Ingurumeneko Esparru Programa honetako helburuen eta konpromisoen kontrako jarduerak sustatzea izango lirateke.
- 2006. urterako, EAEko 10 enpresak Jasangarritasunaren inguruko Txostena (GRI) egingo dute eta 2012. urterako EAEko 40 enpresak.
- 2006. urterako, ingurumeneko praktika onenak 500 enpresaren artean trukatzeko sistema martxan jartzea (Jasangarritasunerako Enpresen Elkarte).
- 2006. urterako, EAEko 40 enpresak beren produktuak egiteko garaian ekodiseinuaren irizpidea erabiltzea eta, 2012. urterako, irizpide horiek 200 enpresak erabiltzea.
- 2006. urterako, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria (EMAS edo ISO-14001) 600 enpresak izatea; 2012, urterako 1.000 enpresa izatea.
- 2006. urterako, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Arteztarauari (IPPC Arteztaraua) jarraitzen dioten enpresen % 85ek eta 2007rako % 100ek Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria (EMAS edo ISO 14001) izango dute.
- 2006. urterako Erosketa eta Kontratazio Publikoan Ingurumen Irizpideak Txertatzeko Programa egitea.

4. **BALDINTZA.** Hiritarrak, Administrazioa eta Enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea eta beren jokabideak Jasangarritasun handiagoari begira aldatzea

"Ingurumena hondatzen ari diren sektore-politikak moldatzeko behar diren egiturak aldatu nahi baditugu, komunikazioa areagotu egin beharko dugu eta hiritarrak mugiarazi egin behar ditugu. Informazioa herritarrei helarazteko eta horiek parte har dezaten bultzatzeko bideak hobetu egin behar ditugu, eta adierazleak ezarri behar ditugu gure politiken eragina neurtzeko. Garrantzi handia du ekintza-programa berria hartzerakoan lortu nahi duguna argi eta garbi azaltzea. Nik erabaki praktikoak nahi ditut aurrera bizkor egiteko, ez baitugu denbora galdu behar".

M. Wallstrom, Ingurumeneko Europako Komisarioa.

Jasangarritasuna lortzeko aurrera egiteko prozesuan, herriko sektore guztiak hartu behar dira aintzat, baina, bereziki, erabakiak hartzen dituztenak edo gizartean eragin gehien dutenak (administrazioak, legegileak, enpresak, hezitzaileak, komunikabideak eta abar) eta, beraz, ardura gehien dutenak hartu behar dira kontuan. Euskal hiritarrak kontzientziatzea eta inplikatzeta, beraz, funtsezkoa da.

Honako helburu hauek lortu behar dira:

- Zuzentasunaren eta elkartasunaren irizpideak oinarri hartuta ingurumena babestea sustatzen duten ingurumen-etikei babesa ematea; horretarako, jarduera eta bizimodu jasangarriak hedatzen lagunduko duten jarduera konstruktiboak sustatu behar dira.
- Jendearengan arazoan ebazpenean esku-hartzeko gai den kontzientzia sortzea eta jarduera positiboetarako aukerak sortzen laguntzea.
- Ingurumen-prozesuen ulermena zabaltzea, prozesu sozialekin, ekonomikoekin eta kulturelekin lotuta.
- Ingurumen-informazioa eskuratzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategietan jendea trebatzea.
- Gai kolektiboetan jendeak eta taldeek aktiboki esku hartzeko motibazioa eta bideak sustatzea, eta inguruan erantzukizun konpartituaren sena sustatzea.
- Ebazpenari begira, jendea ingurumeneko gatazka sozialen analisisian, aukeren eztabaidan eta erabaki indibidualak eta kolektiboak hartzean gaitzea.

Horretarako, ezinbestekoa da ondorengo tresnak garatzea:

Informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa

Edozein ingurumen-politikatan, ezinbestekoa da gizartea informatzeko eta sentsibilizatzeko lanean gizarteko komunikabideek parte hartzea eta laguntzea. Ohiko hedabideek (prentsa, irratia eta telebista) zeregin garrantzitsua izan dute jendeari ingurumenari buruzko informazioa helarazteko eta gai horien inguruko kontzientzia kolektiboa sortzeko. Baina beharrezkoa da ingurumenari buruzko informazioa emateko ohiko ereduak dituzten hutsuneak gainditzea, informazioa gizarteak ingurumen-arazoak ulertzeko eta jasangarritasuna lortzeko bidean parte hartzeko benetako tresna izan dadin.

Ezinbestekoa da informazioaren kontsumo pasibotik erabilera aktibora pasatzea, eta horretarako, beharrezkoa da komunikabide horiek ingurumenari buruz ematen duten informazioaren alde kualitatiboetan eta

kualitatiboetan aurrera egitea. Europako kazetarien artean ingurumen-informazioa hedatzeko dituzten zailtasun nagusiei buruz egindako galdeketa batean, publikatzeko leku eta denbora falta dagoela eta kazetarietzako trebakuntza espezializaturik ez dagoela argi geratu da. Zailtasun horiek oso nabarmenak dira Batasunean.

Horregatik, komunikabideekin etengabe egon behar da harremanetan eta hiritarrei ingurumenari buruzko informazio argia, benetakoa eta gardena emateko materiala kalera dadin bultzatu behar da. Hala ere, sustapen hori bi aldeetatik egin behar da. Ahaleginak egingo dira komunikabide publikoek eta pribatuek **"Ingurumenari buruzko informazio jasagarria emateko konpromisoa"** lortzeko lan egin dezaten. Konpromiso horren bidez, gizartea jasagarritasunaren inguruan sentsibilizatzeko lanean parte-hartze zuzena izatea bideratuko da.

Informazio-teknologia berriak informazioaren eredu tradizionalaren gainbeherari aurre egiteko laguntzarik egokienak dira. Teknologia horiek oso egokiak dira bitarteko tradizionalen leku eta denboraren aldeko mugak gainditu ahal izateko ingurumen-komunikaziorako eragingarritasun handiagoa duen eredu bultzatzeko, baita eredu berriek eskatzen dituzten elkarreragina eta anizkoiztasuna sustatzeko ere.

Informazioaren sistema eta teknologia berri hauek izaten ari diren garapen garrantzitsuak ingurumenean interesa duten edo **ingurumenarekin zerikusia duten talde eta pertsona guztiek ingurumenari buruzko informazioa eskura dezaten bultzatzeko eta errazteko** balio behar du. Horrela, informazio eta dokumentazio osoa eta ez zatikatua jaso ahal izango dute, web orriak, komunitate birtualak, berri-taldeak, sare telematiakoak eta abar sortuz informazioa sortzen dutenen arteko harremana bultzatzeko.

Hezkuntza, trebakuntza eta gaitasuna

Ikasketa adimen-kontua baino zerbait gehiago da, pertsona osoa hartzen duen fenomeno da, eta bere ezagutza-multzoari zentzua ematen dioten balioak, afektuak eta emozioak ere sartzen dira. Helburua pertsona guztiek beren posturen eta aukeren ingurumeneko ondorio sozialak behar bezala ulertzea da, baita aukerak aztertzea eta baloratzea ere.

Gizarte osoan aldaketa nabarmenak egitea lortzeko, beharrezkoa da profesional guztien prestakuntzan eragitea; izan ere, edozein jarduerak zuzenean edo zeharka ondorioak sortzen ditu ingurumenean. Batetik, inguruarekiko erantzukizunaren taldekako sena sortzea eta, bestetik, baliabideak jasagarritasuna kontuan hartuta erabiltzeari begira dagoen portaera soziala izatea, neurri handi batean, lanpostuetan egindako ekarpen pertsonalen bidez lortuko dira. Ekarpene horiek Administrazio Publikoan, araututako hezkuntza-sisteman (derrigorrezko hezkuntza, lanbide- heziketa eta unibertsitatea), enpresetan, sindikatuetan eta komunikabideetan egin beharko dira.

Partaidetza

Ingurumen-arazoak jakintzan, balorazioan, prebentzioan eta hobekuntzan zuzenean inplikatzeko aukera ematen duen prozesua da ingurumen-partaidetza. Jasagarritasunaren kultura eraikitzea norbanakoen, taldeen, enpresen, instituzioen eta hiritarren erakundeek ekarpen ugariak integratzeko prozesu kolektibo gisa ulertu behar da. Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE), elkarte ekologisten eta sindikatu eta elkarte profesionalen parte-hartze aktiboa funtsezkoa da sentsibilizazioa bultzatzeko, taldeko kezkek eta interesak kaleratze eta pertsona guztiak motibatze eta inplikatzeko.

Ildo horretan, "Gobernatzearen Liburu Zuri europarraren" arabera, politiken kalitateak, egokitasunak eta eragingarritasunak prozesuaren fase guztietan (bai politikak sortzeko unean, bai politikak aplikatzeko unean) hiritarren partaidetza eragiten dute. Partaidetza sendoak konfiantza handiagoa sortu behar luke azken emaitzetan eta politikak sortzen dituzten instituzioetan.

◆ HELBURUAK


1. Herrietan eta eskualdeetan Tokiko Agenda 21eko programak sustatzea, hiritarrak informatzea, sentsibilizatzea eta parte-hartzea lortzeko.
2. Hezkuntza-sisteman ingurumen-heziketarako planak sustatzea.
3. Ingurumen-aldagaia lanbide-heziketan (arlotan akademikoan zein lanekoan) eta unibertsitatekoan sartzea sustatzea.
4. Kalitatezko ingurumen-informazio eguneratu eta fidagarria (datu-baseak, aplikazio informatikoak...) berrmatuko duen ingurumenari buruzko informazio-sistema martxan jartzea.
5. Ingurumen-informazioa (fidagarria eta eskuragarria) zabaltzeko mekanismo eragingarriak sortzea; horretarako informazio-teknologia berriak sustatu behar dira (Internet).
6. Hiritarrek parte har dezaten, foro egonkorak sor daitezkeen bultzatzea.
7. Hiritarrei beren bizimoduaren errendimendu ekologikoa ebaluatzen eta alderatzen lagunduko dioten bitartekoak sustatzea.
8. Ingurumen-informazioa sortzen duten eragileen artean informazioa, esperientzia, praktika onak eta abar trukatzeko sare egonkorra sor dadin sustatzea.
9. Garapen jasangarriaren printzipioak eta kultura hedatuko dituzten komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

2003. urterako, ingurumenari dagokionez, Informazioko, Komunikazioko eta hiritarrek Partehartzeko Estrategia abiatzea.

Informazioa, Komunikazioa eta Sentsibilizazioa

- 2002. urtetik aurrera, urtean behin "EAEko Ingurumen Adierazleak" txostena egitea.
- 2002. urtetik aurrera, urtean behin ingurumen-komunikazioko "Aste Berdea" antolatzea, euskal hiritarrek ingurumena gehiago errespetatu dezaten bultzatzeko.
- 2003. urterako, komunikabideek "Ingurumenari buruzko informazio jasangarria emateko konpromisoa" sinatzea. Konpromiso horrek komunikabideek jasangarritasuna lortzeko gizarte-sentsibilizazioan zuzenean parte hartuko dutela jasoko du.
- 2003. urterako, ingurumenean eragina duten programa, plan, proposamen eta beste zenbait gobernu agiriren testuak informatikoki eskuratzeko aukera izatea, eta horien diseinu- eta garapen-fase guztietan gainera.
- 2004. urterako EAEko Ingurumen Datuen Iturrien Katalogoa egitea.
- 2004. urterako, ingurumenari buruzko datuak euskal estatistika-sisteman sartzea.
- 2006. urterako, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan hiritarrei ingurumen-informazioa emateko gunea sortuko da. Hori banaka edo mankomunitatean egin ahal izango da.



- 2006. urterako, hiritarrentzat, EAeko ingurumenarekin lotutako gaien buruzko dibulgazio-aldizkaria kaleratzea.
- 2006. urterako EAEn EIONET sarea garatzea.
- Bi urtetik behin Ekobarometro Sozialak eta Industrialak egitea, ingurumen-jarrera eta konpromisoa neurtzeko.
- Realizar cada 4 años los Ecobarómetros municipal, escolar y de la Administración Pública.

Hezkuntza, trebakuntza eta gaitasuna

- 2003. urtetik aurrera, kualifikazio profesional guztietan, halabeharrez, ingurumen-lehiaren alorra sartuko da; horri trebakuntza bereziko modulua gehituko zaio.
- 2003. urterako, onartutako kualitate profesionalak eta horiei lotutako Trebakuntza Katalogoa berrikusiko eta eguneratuko dira, kasu guztietan kualifikazio eta hezkuntza-moduluetara egokitutako ingurumen-lehia bermatzeko.
- 2003. urterako, gida metodologikoa, eskola-dinamizazioko udal-foroak eta eskoletarako ingurumen-adierazleak barne hartuko dituen Eskolako Agenda 21 Aplikatzeko Plana egitea.
- 2004. urterako, Euskal Administrazio Publikoaren Ingurumeneko Trebakuntza Plana lantzea.
- 2006. urterako, unibertsitateko irakasleentzako ingurumenaren alorrean trebatzeko lerroa martxan jarri behar da.
- 2006rako Lanbide Heziketako ikastetxeen % 30ean ingurugiroa kudeatzeko sistemak jartzea eta 2012rako % 100ean.
- 2006rako derrigorrezko irakaskuntza ematen den ikastetxeen % 50ean Eskolako Agenda 21 ezartzea eta % 100ean 2012rako.

Partaidetza

- 2003. urterako, jendeak lurraldean eragingo duten planak egiten ari direla alde aurretik jakiteko bitartekoak jartzea. Halaber, jendeak planak lantzen ari diren bitartean horiek aztertzeko behar den denbora izan dezan neurri zehatzak hartzea; bai eta planetako informazioa eta proposamenak argi eta garbi eta ondo ulertzeko moduan eskuratu ahal izateko ere.

5. BALDINTZA. Ingurumen-alorreko Ikerketa, Garapen Teknologikoa eta Berrikuntza

Gaur egungo globalizazioa berrikuntza sozialetarako eta teknologikoetarako arreta-ardatz berriak sortzen ari da. Egoera ireki horrek berrikuntzaren ahaleginak ekonomia orokorrean lehiakidetasunerantz bideratzeko eskatzen du, baita ardura eta behar sozialetara eta ingurumeneko ardura eta beharretara bideratzeko ere. Horretarako, politika publikoa eta enpresen estrategiak lankidetzaren eta ekintza bateratuaren bidez elkartzan saiatu beharra dago. I+Gren hurrengo Esparru Programa Europarraren (2002-2006) helburua eta "EAeren Zientzia eta Teknologiaren eta Berrikuntzaren Planaren" helburua joera berri horiei erantzutea da¹⁰.

Etorkizunari begira, euskal gizartearen eta beren enpresen lehiakortasuna segurtatzeak zientzian, teknologian eta berrikuntzan ahalegin nabarmena egiteko eskatzen du. Ezagutza eta aplikazio berrien bidez kalitate askoko ondasunak, prozesuak eta zerbitzuak eskuratu behar ditugu, eta ondasun, prozesu eta zerbitzu horiek garapen jasangarria lortzeko trantsizioan babes gisa balioko dute. Kontzeptu hori Europako Batasunak finkatutako eredu lehiakor berrian sartuta dago.

◆ HELBURUAK

1. Ingurumen-sistemaren eta giza osasunarekin duen loturaren ezagutza sustatzea.
2. Eskura dauden teknologia onenak produkzio-sistemetan sar daitezen laguntzea.
3. Eusko Jaurlaritzaren "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2001-2004ren" esparruan, jasangarritasunaren egungo estrategiari ekarpen gehien egiten dieten proiektuak babes daitezzen sustatzea.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

- 2003. urterako, jatorria ingurumenean duten osasunerako arriskuak zaintzeko sistema izango da. Sistema horren bidez, intentsitatearen, banaketaren eta bilakaeraren berri izango dugu, eta horiei lotutako osasunerako arriskuen balorazioa egin ahal izango dugu.
- 2003. urterako, jatorria ingurumenean duten osasunerako kaltegarriak diren eraginak zaintzeko sistema izango da. Sistema horren bidez, hainbat kasutan gaixotasunek eragindako heriotzen arrazoiak aldaketak eta joerak neurtu ahal izango dira, bereziki ingurumen-arriskuen aurrean besteak baino sentikorragoak direnak.
- 2004. urterako ingurumen-teknologietan oinarritutako 16 enpresa berri sor daitezzen lortzea.
- 2004. urterako, ingurumen-jardueraren alorrean aplikazio bakoitzeko 20 produktu berri garatzea.
- 2004. urterako, ingurumen-berrikuntzako jardueretan 200 ETEK parte har dezaten lortzea.
- 2004. urterako, ingurumen-jardueraren alorrean trebatutako 30 ikertzaile berri izatea.
- 2004. urterako, ingurumen-intzidentzia duten jarduera-alorretan 15 patente europar lortzea.
- Hiru urtetik behin, EAeko biztanleen osasunean izandako ingurumen-inpaktua ikertzeko eta baloratzeko txostena egitea.

10. Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gren esparruan funtsezko 5 alor oinarri hartuta lan egiten da aktiboki: lehiakortasuna, ingurumena eta energia, informazioaren gizarte, bizi-kalitatea eta baliabide biziak.

6



Ingurumeneko
Esparru-Programa Martxan
Jartzea





Ingurumeneko Esparru-Programa Martxan Jartzea

Ingurumeneko Esparru Programa martxan jartzeko nahitaez bi alderdiren lana beharrezkoa izango da:

Lehenengoan, **Administrazio Publikoa** arituko da eta plan eta programa zehatzen bidez garatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean jasotzen dena kontuan hartuta.

Horrez gain, Ingurumeneko Esparru Programa martxan jarri eta eragingarria izan dadin, **eragile sozioekonomiko** guztiek aktiboki parte hartu behar dute.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila Ingurumeneko Esparru Programaren aurrerapen globalei egindako jarraipena koordinatzeaz arduratuko da, eta arestian aipatutako bi alderdi horiek koordinatuko ditu (Administrazio Publikoa eta eragile sozioekonomikoak).

Administrazioarekin lotuta, Sailak Erakundeen arteko Lan Taldea (Eusko Jaurlaritzako sailtako, diputazio-etako eta EUDEL euskal udalen elkarteko ordezkari teknikoek osatzen duten taldea) sendotuz koordinatze-ko esparru iraunkorra finkatuko du. Horrez gain, Sailak ingurumenaren aldagaia kontuan hartzen duten politika sektorialen garapenean laguntza emango du.

Eragile sozioekonomikoei dagokienez, Sailak elkarlanerako bide egonkorak finkatuko ditu eragile horiekin, Ingurumeneko Esparru Programako helburuak eta konpromisoak bete daitezen lortzeko. Hori eragile guztiek erantzukizuna bere gain hartuz egin behar da, ingurumen-erantzukizuna guztien arteko kultura dela ulertuz. Kultura berri hori, besteak beste, Administrazioaren eta eragile sozioekonomikoen arteko Borondatetzko Akordioen bitartez gauzatu behar da. Halaber, Sailak komunikazio-plana jarriko du martxan, Ingurumeneko Esparru Programaren hedapena bultzatzeko eta tartean dauden eragile guztien parte-hartze aktiboa bultzatzeko.

Ingurumeneko Esparru Programaren helburuak lortzeko lehentasuna duten jarduera-sektoreak honakoak dira:

- *Lehen Sektorea*
- *Industria*
- *Eraikuntza*
- *Energia*
- *Garraioa*
- *Etxeko kontsumoa*

Lehen Sektorea

Europar, azken urteotako nekazaritza-politika egitean honako hauek hartu dira kontuan: elikaduraren segurtasunaren eta kalitatearen eskaera gero eta handiagoa, produktuen berezitasunak nabarmentzea, animaliei errespetua, ingurumen-kalitatea eta ingurumena eta paisaia zaintzea. Eta bide horretan asko aurreratu da. Dena dela, datorren hamarkadarako erronka berriei egin behar zaie aurre, sektorea testuinguru global aldakorrean aztertu eta Europako Batasuneko Nekazaritza Batzordean eta Agenda 2000n onartutako integrazio-estrategian bildu. Sektoreei lehiakortasunari eutsiz jarduera jasangarriagoetara jotzeko aukera emango dien merkatuaren baldintzen alde egingo dute erkidegoko dokumentuek:

- Berariazko eskualdeko politikak ezartzea eta tokiko produktuak garatzea, eta, aldi berean, ingurumena zainduko dela bermatzea.
- Produktuetako prezioetan eta sektoreko zerbitzuetan ingurumen- eta gizarte-inpaktuak barneratzea.
- Administrazioek sektorearen kudeaketa integrala ezartzeko beharra, lurraldea eta paisaia, ingurumena, kultur alderdiak eta, noski, nekazaritza-giroko jendea, eta jarduera horrek gainerako hiritarrengan duen eragina kontuan izanik.
- Jakintza sortzeko eta informatzeko eredia ezartzea, neurri horiek aplikatzean zuhurragoa izateko eta jakintza hori modu eraginkorragoan hedatzeko aukera emango duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan lehen sektoreak sortzen dituen ingurumeneko presio nagusiak naturaren kapitalaren degradazioa (lurzoru emankorra, ur garbiak, ekosistema naturalak edo erdinaturalak), hondakin-sorrerara eta biodibertsitatea hondatzera mugatzen dira.

Etorkizunean egin beharreko hainbat urrats egiteko, kontuan izan behar da printzipio eta jarduera jasangarriekin bat datozen politiken diseinua eta landa-garapen jasangarrian aurrerapen-mailari buruzko adierazle eredia. Horretarako, ustiaketa estentsiboagoa egiteko, kostuak eta ingurumen-onurak barneratzeko, elikaduraren inguruko hezkuntza eta informazioa lortzeko, sektoreko I+G bideratzeko eta gizarteko eta kultur balioak sustatzeko aukerak sortzen dira. Etorkizunean sektoreko plangintzak honako alderdi hauek eduki behar ditu gaikako elementu zehatz gisa:

- Sektoreko jardueretan Ingurumeneko Esparru Programaren parametroak eta irizpideak txertatzea.
- Basoak eta natur guneak jasangarritasun-irizpideei jarraituz kudeatzea, haiek zaintzeko eta hiru ikuspegi hauetan hobetzeko: kultur eta aisia-espazioak, errenta- eta enplegu-faktorea eta natur baliabideak eta basoko bizitza zaintzeko euskarria.
- Nekazaritza-ekoizpenerako balio agrologiko handiko lurzorua zaintzea.
- Elikagaien segurtasuna eta kalitatea bermatzea.
- Landa-eremuen askotariko erabilera sustatzea, ingurumenarekiko orekatua izango den eta hori babestuko duen garapena eraginez.
- Arrantza-baliabideen ustiapen jasangarria.

Industria

Ingurumen-jarduerak enpresarentzat kostuak soilik ez dakartzan faktore gisa hartzen duen ikuspegia gaindituta, ingurumena lehiakortasun-faktore gisa onartzen ari da, edozein erakunderen kudeaketan sartu beharreko aldagaia baita. Egokitzen ez diren enpresak epe ertainera merkatutik kanpo gera daitezke. Eta epe laburrean lehiakideak baino lehenago egokitzeak lehiakortasun-abantaila handia ekar dezake. Hori dela eta, garapen jasangarrian aitzindari diren enpresek kotizatzen duten burtsako-indizeak indize orokorren bila-kaeraren gaitetik birbalorizatzen dira (Dow Jones Orokorra eta Dow Jones Jasangarritasuna). Bestalde, gizarteak garapen jasangarriaren inguruan egiten duen eskariak ingurumeneko sektorean negozioarako aukera garrantzitsuak sorrarazten ari da.

Jasangarritasunaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko alderdiak honako hauetan oinarritzen dira: ekogin-kortasuna, gizartearen ardura, aldaketarako barne-ikasketa, eragileekin hitz egitea eta itunak egitea, kontsumitzaileari informazioa ematea eta hura gaitzea, ingurumeneko kostuen prezioak berritzea eta barneratzea.

Sektoreko jasangarritasuna lortzeko bide luze horrek lehiakortasuna hobetzea du oinarritzko helburu; beraz, administrazioak baldintzak eta esparrua ezarri behar ditu eta industriak definizioan zein ezarpenean parte hartzen duela bermatu behar du.

Esparru berria jakintzaren ekonomian ezartzen da, eta hor berrikuntza, enpresa berriak eratzea eta ETEei laguntza ematea beharrezkoa da. Alderdi horiek enpleguaren sorrera sustatzearekin, langileak gaitzearekin, trebatzearekin eta horien osasuna hobetzearekin osatzen dira.

Eraikuntza

Azpiegitura eta eraikinek hiri eta herrietako natura, paisaia, funtzioa eta itxura aldatzen dituzte. Horiek eraikitzean, erabiltzean, konpontzean eta ondoren eraistean energia eta baliabideak kontsumitzen dira eta hondakin asko sortzen da.



Eraikuntza-sektore eraginkorrago eta jasangarriagotik sor daitezkeen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-irabaziak oso handiak izan daitezke. Horretarako beharrezkoa izango da eraikuntza jasangarriaren beharra ikusaraztea eta sektore honek garapen orekatuan nola eragin dezakeen azaltzea. Hori, noski, administrazio-ko hainbat politika gauzatzeko moduan islatu beharko da; politika horiek sektorearengan oinarritzko hiru estrategien bitartez eragiten dute:

- Eraikuntza jasangarria egiteko esparru politikoa ezartzea;
- administrazioan, sektoreko bezero nagusi gisa, buruzagitza-jarrera eredugarria hartzea;
- sektoreari parte-hartze eta lankidetzeta-ikuspegia mahaigaineratzea.

Sektore honetako enpresek Ingurumeneko Esparru Programaren helburu eta xedeak lortzen lagun dezakete, baldin eta bezeroei asetasun, ongizate eta balio handiagoak eskaintzen dizkieten azpiegiturak eta eraikinak eginez, energiaren eta beste baliabide batzuen kontsumoa ahalik eta gehien txikituz eta natur ingurunea bultzatuz eta babestuz, lehiakortasuna hobetzen badute. Sektorean epe luzerako ikuspegia garatzeko etorkizunerako inbertsioa egitea esan nahi du; hori trebakuntzarekin eta ikaskuntzarekin hasten da eta honakoak gauzatzeko garatzen da:

- Ingurumen-informazioa erabiltzea,
- proiektu berritzaileak,
- eraikinen eta azpiegituren erabilera hobetzea,
- kudeaketa-sistemak eta ingurumen-helburuak eguneratzea, etab.

Energia

Energia--sektoreak eta ingurumenak duten harremana natur baliabideak (lurzorua, ura, airea, paisaia, etab.) kontsumitzearekin dago lotuta. Klima--aldaketa eta azidotzea eta antzeko ingurumen-eragin zehatzekin ere badu zerikusia erlazio horrek.

Euskal energia-politikak energia-hornikuntzaren segurtasuna, energia-merkatuen lehiakortasuna eta ingurumenaren zaintza eraginkorra bateratzeko gai izan behar du. Era berean, hazkunde ekonomikoko, enplegua sortzeko eta gizarte-ongizateko dinamikei laguntzeko balio behar du.



Energia-politikan ingurumena txertatzeko helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Energiaren eragingarritasuna eta energia aurrezteko sustatzea.
- Gutxien poluitzen duten energia-iturrien erabilera eta ekoizpena handitzea
- Energia-iturrien ekoizpenean eta erabileran ingurumen-inpaktuak murriztea.

Garraioa

"2001eko EAEko ingurumena. Diagnostikoa" txostenak garraioaren ingurumen-inpaktua aipatzen du, konponbide zailena duen ingurumen-arazoa baita. Izan ere, gaur egungo ereduarekin, etengabe ari dira handitzen errepideko zirkulazioa eta airekoa.

Garraio-sistema jasangarriak gizarte- eta ekonomia-ongizateari begiratu behar dio, natur baliabideak agortu, ingurumena deuseztatu edo osasuna kaltetu gabe.

Hori dela eta, garraio horrek honakoak bete behar ditu gutxienez:

- Lurraldeko mugikortasun-beharrak artatzea eta oinarrizko beharrak edukitzeko aukera ematea;
- Lurraldeko ekonomia- eta gizarte-garapena sustatzea; eta
- Ingurumenak onar dezakeen mailara mugatzea presioak eta ingurumen-inpaktuak.

Gainera, lurraldeko garapenak garraio-azpiegiturei eskatzen dien biodibertsitatearen gaineko inpaktua ahalik eta gehien txikitu behar da, garraio-azpiegituren gaitasuna eta eraginkortasuna optimizatuz eta azpiegitura berrietan ingurumenaren aldagaiak kontuan izanik.

Etxeko kontsumoa

Garrantzi handikoa da euskal hiritarrak sustatzea eta gaitzea ingurumenaren eta baliabideen kudeaketaren inguruan gehiago ardura daitezen.

"2001eko EAEko ingurumena. Diagnostikoa" txostenak adierazten du etxeko sektoreak eragiten duela ingurumena kaltetzen duten isurpenen erdia. Kolektibo sozialak presioak eragiten ditu Ingurugiro Sistemaren ondasun eta zerbitzuak eskatzen dituelako. Ondasun eta zerbitzu horiek baliabide naturalak agortzen dituzte alde batetik, eta, bestetik, bere bizitzan zehar poluitzaile eta hondakinak sortzen dituzte. Gainera, gizarteak ere presioa eragiten dio ingurumenari bere eguneroko jardunean mugikortasuna eskatuta.

Kontsumitzaileari zuzendutako politikaren helburuetako bat ingurumen-inpaktua murriztuko duten eta garapen jasangarriko laguntza emango duten kontsumo- eta ekoizpen-ereduak ezartzea da. Kontsumitzaileek ondasunak eta zerbitzuak erostean ez ezik, produktuak erabiltzean, hondakinak isurtzean, bizilekua mantentzean, etab.ean izaten dituzte kontuan ingurumen-alderdiak. Horregatik, hiritarrei informazioa ematea eta horiek sentsibilizatzea da ingurumen-politikaren erronka handietako bat.

7



Ingurumeneko
Esparru-programaren
Segimendua eta Ebaluazioa



7

Ingurumeneko Esparru-programaren Segimendua eta Ebaluazioa

"Nora joan nahi dugun baldin badakigu eta norabide egokian goazela ziurtatzeko moduren bat baldin badugu, helmugara iritsiko gara ziur aski".

Europako Ingurumen Agentzia.

Ingurumeneko Esparru Programaren aurrerapena eta eragingarritasuna ezagutzeko, Programaren segimendua eta ebaluazioa egingo da, finkatutako helburuak eta konpromisoak lortzeko egin diren aurrerapenak biltzeko adierazle-sistemaren bidez. Horrez gain, hiru urtez behin, "Ingurumenaren diagnostikoa" berrikusiko, eguneratuko eta landuko da, eta ingurumen-egoeran izandako aldaketak gehituko dira. Azkenik, Lege Orokorrak xedatzen duenari jarraituta, lau urtetik behin, Ingurumeneko Esparru Programa bera berraztertuko da eta hurrengo lau urteetarako jarraibide berriak finkatuko dira.

Adierazleak erabilgarri izan daitezen errespetatu behar dituzten **printzipioak** hauek dira:

1. Adierazleek denboran zehar ematen den garapena islatu behar dute, horrela joera ezkorrek aurreikusteko edo zuzentzeko analizatu ahal izango dira.
2. Adierazle-kopuruak txikia behar du izan eta erabilitzaileek horren aurkezpenarekin eta esanahiarekin ohitzen joan behar dute (alegia, adierazten eta esan nahi dutenaren azalpena behar dute, esku hartzen duten eragile guztiek erraz uler ditzaten).
3. Adierazleek helburuekin lotuta egon behar dute. Horrela, adierazleak politikak formulatzeko eta gauzatzeko parte hartzen duten eragileen ardurak ezartzeko aukera ematen duten kudeaketa-tresnak izatera iritsiko dira.

Gaur egun mundu osoan ingurumeneko jasangarritasun-adierazleen garapenarekin zerikusia duten lan ugari egiten ari dira, batez ere Europako Batasunean, ELGAn (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) eta Nazio Batuetako Garapen Jasangarrirako Batzordean. Dena dela, herrialde bakoitzak behar ditu, dinamikaren arabera, hobeto deskribatuko duten adierazleak eta, horregatik, panel horien transposizio hutsek ekiteko gaitasuna mugatuko duten informazio-hutsuneak eragin ditzakete.

Ingurumeneko Esparru Programako adierazleak honako hiru oinarrizko galdera hauei erantzuteko sailkatzen dira:

1. Zein da une jakin bateko ingurumen-egoera?/Zein dira gizakien jardueren ingurumenean eragin ditzaketen ondorioak?
2. Nola bereiz ditzakegu hazkunde ekonomikoa eta ingurumenarekiko inpaktu kaltegarriak?
3. Jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera al goaz Ingurumeneko Esparru Programan definitutakoaren arabera?. Sektore-politikek ingurumen-kezkak kontuan hartzen al dituzte?

Lehenengo galderari erantzuteko **Oinarrizko Adierazleak** definitzen ditugu. Kausa-ereduaren arabera ezarriko dira, ingurumeneko egoera zein hainbat eragilek emandako erantzunak eta presioak, inpaktuak eta indar eragileak kontuan izanda. Adierazle horiek EAeko Ingurumeneko Egoeraren txostena egiteko oinarri dira; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak xedatzen duenaren arabera, hiru urtetik behin egin behar da.

Bigarren galderari erantzuna emateko **Goiburuko Adierazleak**. Oinarrizko Adierazleetatik abiatuz, lehentasunez ezarritako ingurumeneko helburuen joera orokorrak ematen dituen adierazle-kopuru txikia hautatzen da. Gainera adierazle horiek ekonomiaren hazkundearen eta ingurumenaren artean dauden loturak modu erantsian erlaziona ditzakete. Goiburuko Adierazleekin EAeko ingurumeneko garapenaren ikuspegi azkarra eskainiko duen eta desorekak adieraziko dituen Urteko Txostena egingo da, eta horrela desoreka horiek zuzentzeko erabakiak errazago hartuko dira. V. eranskinean Euskal Autonomia Erkidegoko Goiburuko Adierazleen zerrenda dago.

Azkenik, jasangarritasuna lortzeko bidean zein aurrerapen egiten diren galderari erantzuteko bi adierazle-mota ezartzen dira:

- a. *Ingurumeneko Esparru Programaren Konpromisoen Adierazleak, eta*
- b. *Jasangarritasunaren Adierazleak*
- c. *Integrazio-Adierazleak*

Ingurumeneko Esparru Programaren Konpromisoen Adierazleak dokumentu honetan zehazten diren konpromiso guztien aurrerapen-maila ebaluatzeko eta ezagutzeko erabiltzen dira. **Integrazio-Adierazleak** ingurumen-aldagaia politiketan zein mailatan sartu den neurtzen dute. Bi adierazle horiek dokumentuan biltzen diren helburuen eta konpromisoen egokitasuna adierazten dute.

Ingurumeneko Esparru Programaren ebaluazio globala Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak egingo du 4 urtetik behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak xedatu bezala.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilekoan ekitaldi horretan egin beharreko Ingurumeneko Esparru Programako ekintzen programa aurkeztuko dio Gobernu Batzordeari. Ekintza-programan, jardueren zerrendaz gain, honako hauek ere zehaztu behar dira: jarduera horiek egiteko ardura duten organoak, aurreikusitako finantzaketa, horiek eginda lortu nahi diren helburuak, Esparru Programan horiei dagozkien helburuak, hartzailak eta ekintza ebaluatzeko erabiliko diren integrazio-adierazleak eta ingurumen-jasangarritasunarekin duten lotura.

Urteko ekintza-programa Gobernu Batzordeari bidali aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak horien koordinazio-mailaren eta Ingurumeneko Esparru Programan hartutako konpromisoekiko loturen berri eman beharko du.

Ingurumeneko Esparru Programaren lehen urtean ekintza-programa, Programa onartu eta bi hilabeteko epean aurkeztu behar zaio Gobernu Batzordeari eta ekitaldia amaitu arteko denboraldia bakarrik hartuko du.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak jasangarritasunari buruzko laburpen-agiria aurkeztuko dio ekainaren lehen astean egingo den Gobernu Batzordeari. Agiri horretan, Esparru Programako konpromisoen segimendua jasoko da eta Gobernu Sail bakoitzak ingurumen-jasangarritasunari egindako ekarpena balorutako da; baina horien artean dagoen osagarritasuna eta koordinazioa ere. Hori egiteko, urteko jardueren programan sartu behar diren integrazio-adierazleak erabiliko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko, Gobernu Sail guztiek beren urteko jasagarritasun-txostenak emango dizkiote Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari –honek alde zuzenetik eskatu ondoren. Txosten horiek, gutxienez, honako datu hauek jasotzeko behar dituzte:

- Urteko Jarduera-programan aurreikusitako ekintzak eta helburuak.
- Egindako jarduerak eta helburuen betetze-maila.
- Programan sartu gabe zeuden baina Ingurumeneko Esparru Programan hartutako konpromiso batzuekin bat datozen beste zenbait ekintza. Zein helbururi dagozkion aipatu behar da.
- Sail bakoitzaren ingurumen-jasagarritasunaren balorazioa.

Horrela ekainaren lehen hasteko Gobernu Batzordeak jasagarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko behar diren jarraibideak ezarriko ditu desbideratze garrantzitsuak ikusten diren ingurumen-alderdietan.

Azkenik, Ingurumeneko Esparru Programa hau batez ere ingurumen-helburuetan eta sektoreen txertaketan oinarritzen dela esan beharra dago. Hortaz, adierazle-talde bereziago batean gizartea eta ekonomia kontuan hartzea beharrezkoa dela ikusten da, adierazle-talde hori **Jasagarritasun Adierazleak** izenekoak da. Adierazle horiek Euskal Autonomia Erkidegorako finkatuko dira, Europako Batasunak ezarritakoaren arabera; horrela, adierazle horien alderagarritasuna bermatzen baita. IV. Eranskinean, garapen jasagarria lortzeko ingurumen-adierazleen Europako proposamena biltzen da.

HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK

- Ingurumeneko Esparru Programaren Azterketa 2006 eta 2010. urteetan.
- 2004., 2007. eta 2010. urteetako EAEko Ingurumenaren Egoera-txostena egitea
- Ingurumeneko Adierazleen urteko txostena egitea (Goiburuko Adierazleak).
- Bi urtetik behin gizartean eta industrian Ekobarometroak egitea.
- Lau urtetik behin Udalerriaren, Eskolaren eta Administrazio Publikoaren Ekobarometroak egitea.
- Erakunde arteko Taldeak sei hilez behin Ingurumeneko Esparru Programako konpromisoen segimendua egitea, horrela maiatzean Txosten Teknikoa argitaratu eta, ondoren, Ingurumen Batzordeak, Ingurumeneko Kontseilu Aholku-emaileak eta Gobernu Batzarrak balora dezaten.
- Ingurumen Batzordeak, Ingurumeneko Kontseilu Aholku-emaileak eta Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzak urtero Ingurumeneko Esparru Programako konpromisoei buruzko txostenak egitea (Jasagarritasun Txostenak), ekaineko lehenengo astean Gobernu Batzarrera bidaltzeko.
- Ingurumeneko Esparru Programako konpromisoen aurrerapen-mailen analisiari buruzko Gobernu Batzarra urtero egitea (ekaineko lehenengo astean).



Eranskinak

I. Eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunaren Aldeko Konpromisoa

Eusko Legebiltzarrak 1998an onartutako Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko eredu jasangarriarekiko konpromiso sendoa adierazten du, oraingo premiei erantzun eta etorkizuneko belaunaldiek beren premiei erantzuteko gaitasuna arriskuan izan ez dezaten.

Garapen-eredu berri hori, ondorio guztiekin, onartzeak oraingo eredu aldaketa sakona eragiten saiatu beharra esan nahi du. Produktzioan eta kontsumoan portaera berriak sartu behar direla esan nahi du. Poluzioaren eta baliabide-kontsumoaren, hondakinen ekoizpenaren, lurzoruak kaltetzearen eta biodibertsitatearen galeraren inguruan konpromiso pertsonala eta soziala hartu beharra esan nahi du. Edonola ere, aldaketa hori ez sustatzeak gure planetaren etorkizuna arriskuan jartzea eta etorkizunean hor biziko direnen ongizatea hipotekatzea eragingo luke.

Gure bizi-kalitatea, beraz, jasangarritasunaren zimentarrien gainean eraiki beharra dugu: ongizate ekonomikoan, justizia sozialean eta ingurugiro garbi eta osasungarrian hain zuzen. Hiru horiek dira sustatu behar dugun garapen-ereduaren nahitaezko zutarrak. Ingurumenaren babesa, baliabideen erabilera eraginkorra eta ekosistemen produktio-ahalmena dira kontuan hartu behar ditugun oinarritzko baldintzak.

Hori dela eta, dokumentu honek jasangarritasunean oinarritutako eredu berria lortzeko konpromiso sendoaren adierazpena izan nahi du. Ondorengo oinarriek definitzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan helburu hori lortzeko adostutako estrategia:

- **Kode etikoa.** Mundu guztian kontsumo-mailak igotzeak, globalizazioak eta biztanleria-hazkundeak izugarri igoarazi dute baliabideen eskaria. Industrializatutako herrialdeek nazioarteko elkartasuna sustatu behar dugu garapen-bidean dauden herrialdeekin eta hirugarren mundukoekin; izan ere, gure gizarteak eta gurea bezalako gizarte garatuek sortutako ingurumen-eraginen zati handia jasaten dute haiak. Joeren aurreikuspenaren arabera ikus daiteke gaur egungo ingurumen-arazo asko datorren hamarkadan asko larri daitezkeela, gaur egun erabiltzen diren produktio- eta kontsumo-ereduen ondorioz. Gure pentsatzeko era, gure balioak, gure bizimoldeak eta gure kontsumo-ohiturak aldatu beharra dago. Belaunaldien arteko eta herrialdeen arteko elkartasunak gure zereginen zutabe izan behar du.
- **Kohesioa eta gizartearen partaidetza.** Gizarteko sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunerako bidean. Ingurugiroa hondatzen ari diren sektore-politikak moldatzeko behar diren egiturak aldatzeak, komunikazio-sistemak hobetzea eta hiritarrak mugiaraztea eskatzen du. Gizarte-eragile guztiek politikak zehazten eta erabakiak hartzen parte hartzen badute, elkartasun-balioak eta ingurugiroarekiko errespetua barneratzen lagunduko du.

- **Zuhurtzia-printzipioa.** Ingurumenari kalte egin dakiokela uste denean, jardun beharra dago. Ziurtasunik edo zientzia-ezagutzarik ez izatea ez da ingurumena babesteko edozein ekintza mar-txan jartzea atzeratzeko edo ez jartzeko nahikoa arrazoi izango.
- **Ikuspegi integratua.** Jasangarritasunaren bidean, ez da ingurumen-politikak aplikatuz bakarrik aurrera egingo; aitzitik, ingurumen-irizpideak kontuan hartuko dituzten politika sozioekonomikoez indartu beharko dira. Hortaz, ingurumen-aldagaia sektore-politika guztietan eta, batez, ere, indus-tria, garraio, energia, nekazaritza eta kontsumoaren arloko politiketan txertatu beharra dago.
- **Ekoeraginkortasuna.** Euskal Autonomia Erkidegoak hurrengo hamarkadan izango duen auke-ra nagusia ongizatea areagotzea izango da, giza baliabide gehiago eta natur baliabide gutxiago erabiliz. Guztiz funtsezkoa da hazkunde ekonomikoak baliabideak erabiltzearekin eta poluzioare-kin duen lotura haustea, garapen jasangarria lortzeko. Natur baliabideen erabilera murrizteko eta horien produktibitatea areagotzeko eta, beraz, ekonomia-sektore guztietan eta produktu eta zerbitzuen bizitza-ziklo osoan zehar ingurumen-inpaktu gutxiago eragiteko, aldaketak egin litez-ke eta egin beharra dago. Ekoeraginkortasunaren iraultza teknologikoa, nahiz eta nahikoa izan ez, jasangarritasuna lortzeko ezinbesteko faktorea da.
- **Plangintza Estrategikoa.** Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-helburuak euskal gizar-teak beretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat nolako ingurumen-kalitatea nahi duen hausnartzeko egindako prozesuaren emaitza izango dira. Garapen-eredu berria Ingurumene-ko Esparru Programan jaso beharra dago.

Garapen jasangarria berehala eta modu irmo eta seguruan ekitea eskatzen duen ete-nik gabeko estrategia gisa ikusi behar da. Jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, kultur, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-etekinak bildu eta ondoren-goei utzi behar zaizkie.

Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasunaren alde. Bilbon,
2001eko urtarrilaren 22an

II. Eranskina. Erreferentziazko Dokumentazioa

Europako eta nazioarteko agiriak

Orokorra

- Ingurumen-arloko seigarren ekimen-programa. Ingurumena 2010: geroa geure eskuetan. COM (2001) 31 amaiera.
- 2001eko maiatzaren 15eko Batzordearen Komunikazioa, mundu hobe lortzeko garapen jasagarria Europan: garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia. COM (2001) 264 amaiera.
- Ingurumen-erantzukizunari buruzko 2000ko otsailaren 9ko liburu zuria. COM (2000) 66 amaiera.
- Zuhurtzia-printzipioaren baliabideari buruzko 2000ko otsailaren 2ko Batzordearen Komunikazioa. COM (2000) 1 amaiera.
- Zuzenbide Penalaren bitartez ingurumena babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen Arteztarauaren proposamena. COM (2001) 139 amaiera.
- Merkatu bakarrean ingurumeneko zerga eta kargei buruzko 1997ko martxoaren 26ko Batzordearen Komunikazioa. COM (97) 9 amaiera.
- Etiketa ekologikoa emateko aztertze elkartearen sistemari buruzko 2000ko uztailaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1980/2000 (CE) Araudia.
- 2001eko martxoaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 761/2001 zk.ko (CE) Araudia; horren bitartez, erakundeei Ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzako elkartearen sistemara (EMAS) beren borondatez atxikitze aukera ematen zaie.
- 2001eko ekainaren 27ko Europako Parlamentuko eta Batzordeko Arteztaraua, plan eta programa jakinek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa.
- 2001eko apirilaren 4ko Europako Parlamentuko eta Batzordeko gomendioa, Europako Batasuneko kide diren estatuetan egindako ingurumen-ikuskapenen gutxieneko irizpideei buruzkoa.
- 1996ko irailaren 24ko Europako Kontseiluaren 96/61/CE Arteztaraua, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 7ko Liburu Berdea, produktuen politika integratuari buruzkoa (Batzordeak aurkeztutakoa). COM (2001) 68 amaiera.
- Ingurumen-teknologia garapen jasangarriaren alde COM(2002)122.

Integrazioa

- Europako Batzordeak Kontseiluari egindako Komunikazioa, 1998ko maiatzaren 27koa – Txertatzeko lankidetzeta – Europako Batasuneko politikan ingurumena txertatzeko estrategia (Cardiff – 1998ko ekaina). COM (98) 333 amaiera.
- 1998ko urriaren 14ko Batzordearen Komunikazioa: Europako energia-politikan ingurumenaren garrantziaren integrazioa indartzea. COM (1998) 571 amaiera.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari 1999ko urtarrilaren 27an egindako Komunikazioa: Nekazaritza jasangarrirako orientazioak. COM (1998) 22 amaiera.

- 1999ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren CE 1257/1999 Araudia, FEOGAren esku dagoen landa-garapenerako laguntzari buruzkoa; horren bitartez, hainbat Araudi indargabetzen dira.
- Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 1999ko ekainaren 8an egindako Komunikazioa: merkatu bakarra eta ingurumena. COM (99) 263 amaiera.
- 1999ko apirilaren 29ko Kontseiluaren Ondorioak, EBko industria-politikan ingurumeneko gaiak eta garapen jasangarriaren gaiak txertatzeari buruzkoak.
- Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako komunikazioa, 1999ko uztailaren 14koa, arrantzaren kudeaketari eta itsas ingurunean natura kontserbatzeari buruzkoa. COM (99) 363 amaiera.
- Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako Komunikazioa – Ekonomia-lankidetzako eta garapenerako politikan ingurumena eta garapen jasangarria txertatzea – Estrategia orokorrerako elementuak. COM (2000) 264 amaiera.
- 1997ko azaroaren 18an Batzordeak egindako Komunikazioa, ingurumena eta enpleguari buruzkoa (Europa jasangarria lortzeko bidean). COM (97) 592 amaiera.
- 2001eko ekainaren 27ko Europako Parlamentuko eta Batzordeko 1411/2001/CE Erabakia, hiri-ingurunean garapen jasangarria lortzeko lankidetzarako komunitate-esparruari buruzkoa.
- Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Komunikazioa. Gure beharrak eta gure erantzukizunak bateratzea: ekonomia-politikan ingurumeneko gaiak txertatzea. COM (2000) 576 amaiera.
- Europako Batasuneko erauzketa-industria ez energetikoan garapen jasangarria sustatzeko Batzordearen Komunikazioa. COM (2000) 265 amaiera.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari egindako Komunikazioa, 1998ko martxoaren 31koa garraioari eta CO₂-ari buruzkoa: erkidegoko ikuspegia antolatzea. COM (98) 204 amaiera.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari 1999ko abenduaren 1ean egindako Komunikazioa: "Aire-garraioa eta ingurumena: garapen jasangarriaren erronkak". COM (2000) 821 amaiera.
- Garraioak osasunean duen eraginari buruzko txostena. Europako Parlamentua 22.01.02 (A5-0014-2002).
- Garraioari, ingurumenari eta osasunari buruzko bitartekoen esparrua. CEE-ONU/OMS 1/2001.

Informazioa, parte-hartzea, hezkuntza

- 1990eko ekainaren 7ko Batzordearen 90/313/CEE Arteztaraua, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko askatasunari buruzkoa.
- Jendeak ingurumen-informazioa eskuratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Arteztarauaren proposamen aldatua.
- Europarako Ekonomia Batzordea EEB/ONU Hitzarmena, Ingurumen-alorreko prozedura judizialak eta informazioa eskuratzeari, eta jendearen partaidetza bermatzeari buruzkoa (Aarhus-eko Hitzarmena).
- Europarako Ingurumen Komunikaziorako Eredu Berria: kontsumotik informazioaren erabilerara.

Klima-aldaketa

- 1998ko martxoaren 23ko Kontseiluaren Erabakia, Europako Batasunak Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Protokoloa sinatzeari buruzkoa. COM (1998) 96 amaiera.
- Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 1998ko ekainaren 3an egindako Komunikazioa: Klima-aldaketa – Kioto ondorengorako estrategiarantz. COM (98) 353 amaiera.

- Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 1999ko maiatzaren 19an egindako Komunikazioa: Kiotoko Protokoloaren aplikazioa prestatzea. COM (1998) 230 amaiera.
- Europako Batasunean berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-merkatuari buruzko Liburu Berdea. COM (2000) 87 amaiera.
- Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako Komunikazioa, berotegi-efektuko gasen isurpena murrizteko EBk hartzen dituen neurriei eta erabiltzen dituen politikei buruzkoa: Klima-aldaketari buruzko Europako Programa lortzeko bidean. COM (2000) 88 amaiera.
- 1997ko maiatzaren 14ko Batzordearen Komunikazioa, klima-aldaketaren garrantzi energetikoari buruzkoa. COM (97) 196 amaiera.

Energia

- 2001eko irailaren 27ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2001/77/CE Arteztaraua, elektrizitatearen barne-merkatuan energia berriztagarrien iturriak erabiliz sortutako elektrizitatea sustatzeari buruzkoa. DOCE L 27.10.2001
- 1998ko apirilaren 29ko Batzordearen Komunikazioa, Europako Batasunean energia-eraginkortasunari buruzkoa: energiaren erabilera arrazionalizatzeko estrategia lortzeko bidean. COM (1998) 246 amaiera.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari egindako Komunikazioa – Europako Batasunean energia-eraginkortasuna hobetzeko ekintza-plana. COM (2000) 247 amaiera.
- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen Arteztarauaren 2001eko maiatzaren 11ko proposamena, eraikinen energia-errendimenduari buruzkoa. COM (2001) 226 amaiera.
- 2000ko azaroaren 29ko Batzordearen Liburu Berdea – European energia-horniketaren segurtasunerako estrategia lortzeko bidean. COM (2000) 769 amaiera.
- 1996ko azaroaren 20ko Batzordearen Liburu Berdea, energia-iturri berriztagarriei buruzkoa. COM (96) 576 amaiera.
- Etorkizunerako energia: energia-iturri berriztagarriak – Elkarteko ekintza-plana eta estrategia ezartzen dituen Liburu Zuria. COM (97) 599 amaiera.
- Energia-kontsumoaren gaineko eta karbono dioxidoaren isurpenen gaineko zerga sorrarazten duen Kontseiluaren Arteztarauaren proposamena. COM (92) 226 amaiera. COM (1995) 172 amaiera.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari Arteztarauaren proposamenaren Komunikazioa, 2001eko azaroaren 7an egindakoa, garraiorako bioerregaien erabilera sustatzeari buruzkoa. COM (2001) 547.
- EBan kogenerazioa sustatzeko legegintza-ekintzei buruzko 2001eko azaroaren 5eko Oinarrizko Dokumentua.

Substantzia eta prestakin kimikoak

- 2001eko otsailaren 27ko Batzordearen Liburu Zuria, substantzia eta prestakin kimikoei buruzko etorkizuneko politikarako estrategiari buruzkoa. COM (2001) 88 amaierakoa.

Airea

- 2001eko maiatzaren 4ko Batzordearen Komunikazioa – Europarako Aire garbia programa: aire garbiaren aldeko gaikako estrategiarantz. COM (2001) 245 amaiera.
- 2001eko urriaren 23ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2001/80/CE Arteztaraua, erre-kuntza-instalazio handietan sortutako agente poluitzaile jakinak atmosferara isurtzeko mugei buruzkoa. DOCE L 27.10.2001.

- 2001eko urriaren 23ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2001/80/CE Arteztarua, atmosferako poluitzaile jakinak isurtzeko muga nazionaleri buruzkoa. DOCE L 27.10.2001.
- 1996ko irailaren 27ko Kontseiluaren 96/62/CE Arteztarua, inguruneko airearen kalitatea kudeatzeari eta ebaluatzeari buruzkoa.
- 1992ko irailaren 21eko Kontseiluaren 92/72/CE Arteztarua, ozonoaren ondorioz atmosfera-poluizioari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Arteztarauaren proposamena, inguruneko aireko ozonoari buruzkoa.
- 2000ko azaroaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/69 Arteztarua, inguruneko airean dagoen bentzenoarentzako eta karbono monoxidoarentzako muga-balioei buruzkoa.
- 1999/30 Arteztarua, inguruneko airean dauden sufre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren eta nitrogeno oxidoaren, partikulen eta berunaren muga-balioei buruzkoa.
- 2000ko uztailaren 17ko Batzordearen Erabakia, Kontseiluaren 96/61/CE Arteztarauaren 15. artikulua araberako poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuei (IPPC) buruzkoa– isurpen poluitzaileen inbentarioa (EPER) egiteari buruzkoa.

Urak

- 2000ko urriaren 23ko EUROPAKO PARLAMENTUKO ETA KONTSEILUKO 2000/60/CE ARTEZTARUA, ur-politikaren alorrean komunitate mailako ekintza-eremua ezartzen duena. DOCE L 22/12/2000.
- 2001eko azaroaren 20ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2455/2001/CE Erabakia; horrekin, ur-politikaren alorrean lehentasuna duten substantzien zerrenda onartzen da eta 2000/60/CE Arteztarua aldatu egiten da. DOCE-L 331 de 15/12/2001.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari eta Ekonomiako eta Gizarteko Lantaldeari egindako Komunikazioa: baliabide hidrikoen erabilera jasangarria eta tarifakazio-politika. COM (2000) 477.

Hondakinak

- 1999ko apirilaren 26ko Kontseiluaren 99/31/CE Arteztarua, hondakinak isurtzeari buruzkoa.
- 2000ko irailaren 18ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2000/52/CE Arteztarua, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Arteztarauaren proposamena, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinei buruzkoa.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Arteztarauaren proposamena, tresna elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakinak erabiltzeko murrizketei buruzkoa.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Arteztarauaren proposamena; horrekin ontziei eta ontzi-hondakinei dagokien 94/62 Arteztarua aldatu egiten da.
- 1998ko uztailaren 22ko Batzordearen Komunikazioa: Birziklatzeko enpresen lehiakortasuna. COM (98) 463 amaiera.

Biodibertsitatea eta Paisaia

- 1998ko otsailaren 5ean Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako Komunikazioa, biodibertsitatearen alorrean Europako Batasunaren estrategiari buruzkoa. COM (98) 42 amaiera.
- 2001eko martxoaren 27an Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Komunikazioa: baliabide naturalak kontserbatzeko biodibertsitateari buruzko ekintza-plana (II. liburukia). COM (2001) 162 amaiera.

- 2001eko martxoaren 27an Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Komunikazioa: nekazaritzan biodibertsitateari buruzko ekintza-plana (III. liburukia).
- 2001eko martxoaren 27an Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Komunikazioa: arrantzan biodibertsitateari buruzko ekintza-plana (IV. liburukia).
- 2001eko martxoaren 27an Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egindako Komunikazioa: garapenerako lankidetzarako eta ekonomia-lankidetzarako biodibertsitateari buruzko ekintza-plana (V. liburukia).
- 1999ko azaroaren 4an Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari egindako Komunikazioa, basoen eta garapenaren alorrean EBren iritziari buruzkoa. COM (1998) 554 amaiera.
- 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/CEE Arteztaraua, habitat naturalak eta fauna eta flora basatiak kontserbatzeari buruzkoa.
- Paisaiaren Europako Konbentzioa
- 1979ko apirilaren 2ko Kontseiluaren 79/409/CEE Arteztaraua, hegazti basatiak kontserbatzeari buruzkoa.

Zarata

- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Arteztarauaren proposamena, inguruneke zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa.
- 1996ko azaroaren 4ko Batzordearen Liburu Berdea, zarataren kontrako etorkizuneko borrokari buruzkoa. COM (96) 540 amaiera.

Garraioa

- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomiako eta Gizarteko Lan-taldeari eta Eskualdeetako Lan-taldeari 1998ko abenduaren 1ean egindako Komunikazioa: Garraio-politika bateratua – Mugikortasun Jasangarria: Etorkizuna. COM (1998) 716 amaiera.
- Mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzeari buruzko Kontseiluaren erabaki-proposamena. COM (96) 654 amaiera.
- 1995eko abenduaren 20ko Batzordearen Liburu Berdea, "Garraioan tarifakazio zuzena eta eraginkorra lortzeko bidean – Europako Batasunean garraioaren kanpo-kostuak barneko bihurtzeko aukerak". COM (95) 691 amaiera.
- 1998ko uztailaren 22ko Batzordearen Liburu Zuria: Azpiegiturak erabiltzeagatik bidezko tarifak – Europako Batasunean garraio-azpiegituren tarifa jartzeko eremu komunerako mailakako estrategia. COM (1998) 466 amaiera.

ESTATUKO DOKUMENTUAK

Orokorra

- Espainiako Garapen Jasangarriaren estrategia. Aurrerapen-dokumentua.
- Ikerkuntza Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Plan Nazionala.
- Espainiako ingurumen-hezkuntzaren Liburu Zuria.

Urak

- Uztailaren 20ko Errege Dekretu Legegilea; horren bitartez Uren Legearen testu bateratua onartzen da. 2001/07/24ko EBO.

- Abenduaren 28ko 11/1995 Errege Dekretu-Legea –hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatzen dituzten arauak ezartzen ditu–, martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuak garatua eta urriaren 2ko 2116/1998 Errege Dekretuak aldatua.
- Abuztuaren 2ko 484/1995 Errege Dekretua, erregularizatzeko neurriei eta isurpenen kontrolari buruzkoa.
- Ekainaren 2ko 995/2000 Errege Dekretua, hainbat substantzia poluitzaileentzako kalitatezko helburuak ezartzen dituena.
- Nekazaritzatik datozen nitratoek eragindako poluzioaren kontrako 261/1996 Errege Dekretua.
- Irailaren 14ko 1138/1990 Errege Dekretua, Kontsumo Publikorako Edateko Uraren Kalitateari buruzkoa.
- Uztailaren 1eko 734/1988 Errege Dekretua, Bainurako Uren Kalitateari buruzkoa.
- Plan Hidrologiko Nazionala (uztailaren 5eko 10/2001 Legea).

Hondakinak

- Hondakinei buruzko 10/1998 Legea. 1998/07/22ko BOE.
- Ontzi eta Ontzi-hondakinei buruzko 11/1997 Legea. 1997/04/25eko BOE.
- 782/1998 Errege Dekretua; horrekin 11/1997 Legea –Ontzi eta Ontzi-hondakinei buruzkoa– gauzatzeko eta garatzeko Araudia onartzen da. 1998/05/01eko BOE.
- Hiri Hondakinen Plan Nazionala, 2000-2006.
- Erabiltzen Ez diren Pneumatikoen Plan Nazionala, 2001-2006.
- Bizitza baliagarriaren amaieran dauden Ibilgailuen Plan Nazionala (2001-2006) (2001eko urriaren 16ko BOE, 248 zk.).
- Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinen Plan Nazionala, 2001-2006 (2001eko uztailaren 12ko BOE, 166 zk.).
- Hondakin Uren Araztegi-tako Lohien Plan Nazionala, 2001-2006 (2001eko uztailaren 12ko BOE, 166 zk.).
- Abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua, hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duena.

Biodibertsitatea

- Aniztasun Biologikoaren Kontserbaziorako eta Erabilera Jasangarrirako Espainiako Estrategia.
- Hezeguneak kontserbatzeko eta zentzuz erabiltzeko plan estrategikoaren aurrerapena.
- Espainiako baso-estrategia eta Baso Plana.

EAEko DOKUMENTUAK

Orokorra

- 1998ko otsailaren 27ko EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra. 1998/03/27 EHAA.
- Apirilaren 8ko landa-garapenari buruzko 10/1998 Legea.
- Irailaren 24ko 229/1996ko Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako ekoizpen ekologikoa, produktuak eta horiek merkaturatzea arautzen duena eta Nekazaritzako Ekoizpen Ekologikoko Euskal Kontseilua sortzen duena.
- Otsailaren 13ko 31/2001 Dekretua, Ekoizpen Integratuari eta nekazaritzako produktuetan adierazi behar den moduari buruzkoa.

- Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretua, Euskal Herriko bertako animalia-arrazei eta horiek sustatzen dituzten erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 24ko 213/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako eta ingurumeneko konpromisoa eta neurriak ezartzeko laguntzei buruzkoa.
- Sustapen Ekonomikorako Erakundeen arteko Plana, 2000-2003.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana, 2001-2004.
- Industria Aurriak Eraisteko EAEko Programa.
- Jarduera Sozioekonomikoak Bateratzeko eta Garatzeko Programa. Urdaibai Biosferaren Erreserbako Tokiko Agenda 21. Eusko Jauriaritza 1999.
- EAEko Udalerrietan Tokiko Agenda 21 Sustatzeko Programa 2000-2003.

Biodibertsitatea

- Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legea.
- EAEko Landa Garapen Jasangarrirako 2000-2006 Plana.
- Euskal Baso Plana, 1994-2030.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Mendien Foru Arauak.

Lurralde Antolamendua

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko Legea.
- Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua; horren bitartez, behin betiko onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Jarraibideak.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldeko Plan Sektoriala.
- Kultur Ondarearen Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- Nekazaritza/Basogintzaren eta Natur Ingurunearen Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- EAEko Hezeguneen Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamendu Komertzialetako Lurzoruaren Sorrera Publikorako Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- EAEko ibai eta erreken ertzen antolamenduko Lurraldeko Plan Sektoriala (isurialde atlantikoa eta isurialde mediterraneo).
- Bizkaiko Errepideetarako Lurraldeko Plan Sektoriala.
- Arabako Errepideetarako Plan Integrala.
- Gipuzkoako Errepideen Lurraldeko Plan Sektorialaren Aurrerapena.
- Txingudiko Eremuko Baliabide Naturalak babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia.



Urak

- Arabako Uraren Liburua. Arabako Foru Aldundia (2001).

Energia

- Energia Politika. 3E-2005 Plana. Euskadi 2005 Estrategia Energetikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Estrategia Energetiko Berria (2010). Eusko Jaurlaritza (egiten ari dira).
- Energia Eolikoaren Lurraldeko Plan Sektoriala.

Lurzoruak

- Poluitutako Lurzoruak Berreskuratzeko EAEko Udalerri eta Mankomunitateetarako Programa, 2000-2002.

Hondakinak

- EAEn Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko 2001-2006 Planaren Zirriborroa.
- Arriskutsuak Ez diren Hondakinak Kudeatzeko Planaren Aurrerapena. 2001-2006.
- Birziklatzeko Planaren Proposamena (2003-2016) Bizkaiko Foru Aldundia.

III. Eranskina. Terminoen Glosarioa

TERMINOEN GLOSARIOA	
Irisgarritasuna	Elkarte bateko kideak leku batera iristeko erraztasuna adierazten duen aldagai kualitatiboa.
Nekazaritza-jarduera	Nekazaritzako edo nekazaritza-abeltzaintzako jarduerak lurzorua baliabide begetalekin eta animalia-espezieen hazkuntza eta ugalketarekin zerikusi zuzena dutenak dira. Hiru multzo bereizten dira: <ol style="list-style-type: none"> Nekazaritza: multzo honetan basogintzakoak ez diren baliabide begetalen hazkuntzarekin zerikusi zuzena duten jarduerak sartzen dira (laborantza estentsiboak, baratzezaintza, lorezaintza, mintegietako laborantza, perretxiko-hazkuntza eta laborantza hidroponikoak). Basogintza: basogintza mendien kudeaketatik ondorioztatutako jarduerak osatzen du. Menditzat nekazaritzako ezaugarriak ez dituzten zuhaitzen, zuhaixken eta belarren espezieak dauden lurrak hartzen dira. Abeltzaintza: abeltzaintzakoak abere-mota guztiak haztearekin zerikusia duten jarduera guztiak dira, larrutarako animaliak hazteko eta espezie zenegetikoak hazteko granjak barne.
Agenda 21	Rioko Konferentzian onartutako garapen jasangarrirako ekintza-programari ematen zaion izena. Tokiko Agenda 21-ek lurraldeko agintariak jasangarritasunerako onartu dituzten plan edo programa estrategikoak dira.
Hiriko hondakin-urak	Etxeko hondakin-urak, edo horiek industriako hondakin-urekin edo euri-urekin nahasirik.
Lurpeko urak	Asetasun-eremuko luraren azpian dauden urak, lurzorua edo zorupea ukitzen dituztenak.
Lurrazaleko urak	Ur kontinentalak (lur azpiko urak izan ezik): trantsizio-urak eta kostako urak.
Bizitza Zikloaren Analisia (BZA)	Produktu batekin zerikusia duten ingurumen-alderdiak eta inpaktuak ebaluatzeko metodoa da. Definitutako sistemaren intsumoak eta produktuen inbentarioa egiten da, eta intsumo eta produktu horiekin zerikusia duten ingurumen-inpaktuak ebaluatu ondoren, emaitzak interpretatzen dira.
Ingurumen-ikuskaritza	Ekoiaren prozesuen eta horren ekipamenduen azterketa edo ebaluazio sistematikoa, ingurumen-helburuak ongi betetzen dituztela egiaztatzeko: baliabideen eta energiaren erabilerak eta hondakinen sorrera.
Bioerregaia	Biomastatik eratu den garraiorako erregai likidoa edo gasa (esaterako, biodiesela, bioetanola, biogasa, biometanola, biodimetiletterra, biolioa, bio-ETBEa).
Biodibertsitatea (=aniztasun biologikoa)	Edozein iturritako, ekosistema lehortarreko, itsastarreko eta beste ur-sistemetakako organismo bizien ugartasuna, parte hartzen duten konplexu ekologikoak kontuan izanik; espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta ekosistemen arteko aniztasuna hartzen du kontuan.
Biomasa	Berehalako prozesu biologikoan jatorria duen materia organiko mota oro. Landare-biomasa –fotosintesiaren bitartez sortutako materia organikoa– eta animalia-biomasa –landare-materiaz elikatzen diren izaki bizidunek sortutakoa– bereiz daitezke.

Karga-gaitasuna	Sistemaren funtzionamendua asko aldatu gabe erabili ahal izateko, sistemaren erabilera-mailarik altuena.
Ingurumen Datuetako Iturrien Katalogoa	Europako Ingurumen Agentziak garatutako sistema informatizatua, ingurumeneko informazio garrantzitsuen erreferentzia era bateratuan eta normalizatuan ematen duen ingurumeneko informazioa identifikatu eta aurkitzen duena.
Zentral termiko aurreratuak	Eraginkortasun energetiko handia eta ohizkoak baino ingurune-inpaktu txikiagoa duten elektrizitatea sortzeko azken belaunaldiko zentralak. Ezagunen artean, besteak beste, errendimendua hobetzeko gas eta lurrunezko ziklo termodinamiko konbinatuak erabiltzen dituztenak daude; horiek % 60ko transformazio-errendimenduak dituzte eta ohizko prozesu termikoek, berriz, % 32-34 (ikatzekoak, fuel-oliozkoak, etab.).
Ingurumen-ziurtagiria	Borondatezko prozedura da, eta horren bitartez, erakunde independente batek produktu, prozesu edo zerbitzu jakin batek xedatutako hainbat ingurumen-baldintza betetzen dituela adierazten duen idatzizko bermea ematen du.
Kogenerazioa	Berehala erabil daitezkeen bi energia-mota edo gehiago era berean sortzea. Normalean energia elektrikoa eta termikoaren ekoizpen konbinatua definitzeko erabiltzen da.
Kontserbazioa	Habitat naturala eta fauna eta flora basatien populazioak egoera onean kontserbatzeko edo suspertzeko hartu behar diren neurriak.
Energiaren azken kontsumoa	Energia-sektoreak energia eraldatu, garraiatu eta banatu ondoren, azken kontsumitzaileen esku utzitakoa.
Energiaren barne-kontsumo gordina	Energia-sektoreak eraldatu, garraiatu eta banatu baino lehen ekoiztutako eta/edo inportatutako energia-eskaria.
Poluzioa	Giza jardueraren bidez, atmosferan, uretan edo lurzoruan, giza osasunerako edo ingurumenaren kalitatearentzat kaltegarriak izan daitezkeen, edo ondasun materialei kalte egin diezaieketen, edo ingurumenaz gozatzea edo beste zenbait erataraz erabiltzea eragoz dezaketen substantziak, bibrazioak, usaina edo zarata, zuzenean edo zeharka, sartzea.
Korridore ekologikoak	Sistema naturalen osagai nagusien fluxua ahalbidetzen duten konexio-korridoreak.
Arro hidrografikoa	Bokale, estuario edo delta bakar batetik itsasoratzen den ura garraiatzen duten ur-laster, ibai eta, zenbaitetan, lakuek drainatzen duten lurraldea.
Elektrizitate-banaketa	Bezeroak elektrizitatez hornitzeko, behe-tentsioko edo tentsio ertaineko banaketa-sareetatik elektrizitatea garraiatzea.
Ingurumen Deklarazioa	Ingurumen Deklarazioa Eusko Jaurlaritzaren administrazio-tresna da. Edozein erakundek (enpresek, hiritarrek, elkarteek eta abar) bete behar dituen ingurumen-obligazioei dagozkien izapide guztiak deklarazio bakarrean biltzen ditu.
BREF agiriak	1996ko irailaren 24ko Kontseiluaren poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko 96/61/CE Arzetzaruaaren arabera erreferentzia-agiri teknikoak (IPPC Arzetzarua). Bertan eskura dauden teknika onenak deskribatzen dira.
Ekobarometroa	Eragile sozioekonomikoen ingurumenarekiko jokaera, konpromisoa eta ekintza adierazten duen inkesta.
Ekodiseinua	Diseinatzeko garaian, produktuaren bizi-ziklo osoa izan nahi du kontuan, existitzen den bitartean ingurumeneko inpaktua txikitzeko asmoz (lehengaitik hasita, ekoizpen-, banaketa- eta erabilera-faseetatik igaro, eta hondakin gisa tratatu arte).

Ekoeraginkortasuna	Produktuaren bizi-ziklo osoan baliabide naturalak eta energia ezin hobeto erabiltzea, bai eta bizi-amaieran berriz erabil ezin daitezkeen produktu-hondakinak ahalik eta gutxien sortzea ere.
Ekotasa (=ingurumen-zerga)	Hainbat jarduera ekonomikoren inpaktua arintzeko aukera ematen duten pizgarriak emateko (edo kentzeko) diseinatutako zerga.
Energia-eraginkortasuna	Energia aurrezteko kontzeptuak sartzen dituen energiaren zentzuzko erabilera; berrikuntza energetikoa (prozesuena, sistemena eta ekipo kontsumitzaileena), bai eta energia hobeto aprobetxatzearekin erlazionatutako beste batzuk ere, kogenerazioa, esate baterako.
EIONET	Europako Ingurumen Agentziako Ingurumena Behatzeko eta Ingurumenari buruz Informatzeko Europako Sarea.
Hondakinak ezabatzea	Gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kalte dezaketean metodoak erabili gabe biltegitratzeko edo hondakinak kontrolpean isurtzeko edo, erabat edo partzialki, deuseztatzeko erabilitako prozedura guztiak.
EMAS	Hainbat erakunde borondatez parte hartzeko aukera ematen duen erkidegoko kudeaketa- eta ingurumeneko ikuskaritza-sistema, erakunde horiek ingurumenari dagokionez duten jokoera ebaluatzeko eta hobetzeko eta jendeari eta beste zenbait interesatuei dagokion informazioa hedatzeko.
Energia berriztagarriak	Naturan etengabe berritzen den eta agortzen ez den iturri batetik lortzen den energia. Energia-iturri horietatik honako hauek aipa daitezke: biomasa, energia geotermikoa, energia hidraulikoa, eguzki-energia, energia eolikoa eta itsasoko energia (marea-energia eta olatuena), hondakindegia-gasak, biogasa eta hondakin-uren araztegiak.
Natur gune babestua	Enklabe bitxiak, natur txoko pribilegiatuak edo prozesu ekologikoak babesteko eta natura kontserbatzeko zehaztutako administrazio-esparrua.
Desagertzeko arriskuan dagoen espezie katalogatua	Bizirauteko aukera gutxi duten espezie, azpiespezie edo fauna- edo flora-populazioen kategoria, beti ere gaur egungo egoeraren erantzule diren faktoreen eraginpean segitzen badute.
Uren egoera ekologikoa	Lurrazaleko urekin lotutako uretako ekosistemen egitura eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazpena da eta 2000/60 Arteztarauaren V. Eranskineko adierazleen arabera sailkatzen da.
Etiketa ekologikoa	Produktu, prozesu edo zerbitzuren batek ingurumen-baldintza jakinak betetzen dituela eta ingurumen-ziurtagiria duela edo izan lezakeela adierazten duen marka identifikatzailea da.
Eutrofizazioa	Uretan elikagai-kopuruaren gorakada –fosforozko eta/edo nitrogenozko konposatuak bereziki–; horrek algak eta landare-espezie nagusiak azkar hazarazten ditu, eta horregatik, uretan dauden organismoen arteko orekan eta ur-kalitatean arazoak sortzen dira.
Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa	Planak eta proiektuak gauzatzean ingurumenean sor daitezkeen efektuak balioesteko eta zuzentzeko aukera ematen duten sistema teknikoak eta ikerketak dira.
Fitosanitarioa	Nekazaritzan hainbat helbururekin erabiltzen diren substantzia kimikoak dira; ekonomiaren ikuspegitik, uzta onargarriak lortzeko beharrezkoak dira, osasunean arriskuak eragin ditzakete eta, horregatik, horiek erabiltzeko kontrol- eta baimen-sistema dago.
Hondakin-kudeaketa	Hondakinak biltzea, biltegitratzea, garraiatzea eta ezabatzea, jarduera horien zaintza ere barne; halaber, barne hartzen du itxi ondoren biltze- edo isurtze-guneak zaintzea ere.

GRI	Global Reporting Initiative. Enpresen Jasangarritasun Txostena.
Energia-intentsitatea	Herriaren edo herrialdearen barne-produktu gordinaren eta energia-kontsumoaren arteko erlazioa. Jarduera jakinetako sektoreei edo azpisektoreei buruzkoa ere izan daiteke. Ekoizpen-sektoreetan eta -jardueretan energia zentzuz erabiltzen dela ikusteko egiten den neurketa da.
IPPC	1996ko irailaren 24ko Europako Kontseiluaren 96/61/CE Arteztaraua, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoa.
Lurrazaleko uraren masa	Lurrazaleko uraren zati berezia eta garrantzitsua, hala nola, lakua, urtegia, ur-lasterra, ibaia edo kanala, ur-laster, ibai edo kanalen baten zatia, trantsizio-urak edo kostako uren zatia.
Eskura dauden Teknika Onenak (ETO)	Jardueren eta ustiapen-moduen garapenaren fase eraginkorragoa eta aurreratuagoa da, teknika jakin batzuek emisio-mugen balioaren oinarria izateko duten ahalmena erakusten duena, eta ahal denean, emisioak saihestea eta ingurumenean, oro har, duten eragina murriztea helburu duena. Honela ere ulertu behar da: <ul style="list-style-type: none"> • "teknika": erabilitako teknologia eta instalazioa diseinatu, eraiki, mantendu, ustiatu eta gelditzeko modua. • "eskura dauden": dagokion industria-sektorean aplikatzeko moduko eskalan garatutako teknikak izatea, baldintza tekniko eta ekonomiko bideragarrietan erabili ahal izateko modukoak izatea eta kostuak eta onurak kontuan hartzea. • "onenak" teknika eraginkorrenak, ingurumena, oro har, maila handian babesten dute.
Mugikortasuna	Joan-etorri kopurua neurtzen duen aldagai kuantitatiboa.
Genetikoki Eraldatutako Organismoa (GEO)	Estalketan eta/edo birkonbinazio naturalean gertatzen den ez bezala material genetikoa eraldatu zaion organismoa.
Produktu Politika Integratua	Produktuen bizi-zikloan –lehengaiak meatzetan erauzi eta hondakinen kudeaketaraino, ekoizpenetik, banaketatik eta erabileratik igarota– ingurumeneko efektuak murriztu nahi dituen ikuspegia. Ideia eragilea zera da, produktuaren bizi-zikloko fase bakoitzean ingurumeneko efektuak txertatzea funtsezkoa dela eta hori sektore interesatuen erabakietan irudikatuta azaldu behar dela.
Hondakin-sorreraren prebentzioa	Hondakinak sortzea saihesteko edo hondakin-kopurua murrizteko hartutako neurriak, bai eta horietan dauden substantzia arriskutsu edo poluitzaileentzat hartutakoak ere.
Birziklatzea	Hondakinak ekoizpen-prozesu baten barnean eraldatzea, hasierako erabilera bera edo besteren bat izan dezaten, konposta egitea eta biogasifikazioa ere barne, baina ez, ordea, energia berreskuratuz erraustea.
Hondakin-bilketa	Hondakinak garraiatzeko biltzea, sailkatzea, taldekatzea edo prestatzea.
Gaikako bilketa	Hartzi daitezkeen material organikoen edo material birziklagarrien gaikako bilketa-sistema, eta hondakinetan dauden material balorizagarriak bereizteko aukera ematen duen gaikako beste edozein bilketa-sistema ere bai.
Baliabide genetikoak	Informazio genetiko baliagarria edo erabilgarria duen edo eduki dezakeen material biologiko oro, bai biodibertsitateari dagokiona, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenari dagokiona.
Natura 2000 Sarea	Kontserbazio berezia behar duten guneen sare ekologikoa.

Energia-errendimendua	Prozesuan lortutako energia erabilgarriaren eta prozesuan erabilitako energia-kantitate osoaren arteko erlazioa. Askotan eraginkortasun hitza erabiltzen da errendimenduaren sinonimo gisa.
Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakina	Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren sortutako edozein substantzia edo tresna, horren jabeak baztertutakoa edo baztertu beharrekoa.
Hondakin sanitarioa	Osasun-jardueretan sortutako edozein substantzia edo tresna, horren jabeak baztertutakoa edo baztertu beharrekoa.
Hondakinak	Edukiztaileak baztertzen duen edo baztertu behar duen edozein gai edo tresna. Nolanahi ere, Europako Hondakin Katalogoan (EHK) azaltzen diren substantziak.
Hondakin arriskutsuak	Europako Hondakin Katalogoan (EHK) arriskutsu gisa azaltzen direnak.
Hiri-hondakinak	Etxeetan, saltokietan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak; halaber, arriskutsu-kalifikaziorik ez izanagatik osakeragatik aurrekoekin pareka daitezkeenak ere hiri hondakintzat hartzen dira.
Berriz erabiltzea	Erabilitako produktua hasieran diseinatu zenerako erabiltzea.
Silbikultura	Basoak kudeatzea eta aprobetxatzea.
Lurzorua	Lurrazaleko zati solidoa, harri amatik hasita gainazaleraino, fase likidoa zein gasa eta horietan bizi diren organismoak –funtzio naturalak zein hori erabiltzeko funtzioa betetzeko gai direnak– ere barne.
Lurzoru poluituak	Ezaugarri kimikoen aldaketak dituen lurzorua, eta horregatik bere funtzioekin bateraezina dena –jendearen osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina eragin dezaketelako–, EAEko ingurumen-organoak hala izendatzen dituenak.
Karbono-hustutegiak	Atmosferatik berotegi-efektuko gasa, aerosola edo berotegi-efektuko gas baten aitzindaria xurgatzen duen edozein prozesu, jarduera edo mekanismo.
Substantzia arriskutsuak	Substantzia edo substantzia-talde toxikoak, iraunkorrak eta biometaketa sor dezaketenak, bai eta antzeko arriskua eragin dezaketen beste zenbait substantzia edo substantzia-talde ere.
MBG (Material Beharrak Guztira)	Jarduera ekonomikoaren ondorioz naturatik erauzitako lehengaien bolumen metatua (urteko eta biztanle bakoitzeko, tonatan adierazia) hartzen du kontuan.
Hiriko hondakin-uren arazketa egokia	Edozein ezabaketa-prozesu edo -sistema erabiliz hiriko hondakin-urak tratatzea, eta horrekin, isurketaren ondoren isuritakoa jaso duten urek indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako kalitate-helburuak betetzea.



Genetikoki Eraldatutako Organismoen erabilera itxia	Mikroorganismoak genetikoki eraldatzeko edozein eragiketa edo genetikoki eraldatutako mikroorganismo horiek hazteko, biltzeko, erabiltzeko, garraiatzeko, deuseztatzeko edo ezabatzeko edozein eragiketa, baldin eta oztopo fisikoak, edo oztopo fisikoen eta kimikoen eta/edo biologikoen arteko konbinazioa erabiltzen badira, populazioa eta ingurumenarekin izan dezaketen kontaktua mugatzeko.
Isurpenen muga-balioak	Parametro jakin batez emandako masa, kontzentrazioa eta/edo isurpen-maila; horren balioa ezingo da epe jakin batean edo batzuetan gainditu.
Inmisioen muga-balioak	Atmosferan egon daitezkeen poluitzaile bakoitzeko muga maximo onargarriak. Muga-balio horiek jakintza zientifikoan oinarrituta zehazten dira eta giza osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen ondorio kaltegarriak prebenitu edo murriztea da helburua. Muga horiek epe jakin batean lortu behar dira, eta lortu ondoren ezin dira gainditu.
Balorizazioa	Hondakinetako baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen edozein prozesu, giza osasunari edo ingurumenari kalte egin diezaioketen metodorik erabili gabe.
Hondakindegia	Lurrazalean edo lur azpian hondakinak gordetzeko erabiltzen den ezabatze-instalazioa.
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren guneak	Ingurumenari dagokionez ezaugarri bereziak dituzten eremuak, eta horien hauskortasuna dela eta, ingurumenaren ikuspuntutik gehiago hondatzen direnak.

IV. Eranskina. Garapen Jasangarria Lortzeko Ingurumen-adierazleen Europako Proposamena

Aurrekari ekonomikoak

- 1) Biztanle bakoitzeko BPG (erosteko ahalmenaren parekotasunaren bidez adierazia) eta BPGaren benetako igoera-indizea
- 2) Lan-produktibitatea (langileko eta lanordu bakoitzeko)
- 3) Langabezi-tasa
- 4) Inflazio-indizea
- 5) Lan-kostuen igoera erreal
- 6) Sektore publikoko oreka

I. Enplegua

- 7) Enplegu-indizea (guztizkoa eta sexuaren araberakoa)
- 8) Adin handiena duen populazioaren enplegu-indizea
- 9) Emakumezkoen eta gizonezkoen soldataren arteko diferentzia
- 10) Soldatarik baxuenen PFEZaren indizea
- 11) Ikastaldi jarraitua (helduek hezkuntzan eta ikaskuntzan parte hartzea)
- 12) Lan-istripuak (lan-motak)

II. Berrikuntza

- 13) Hezkuntzan egiten den gastu publikoa
- 14) I+G-ko gastua/inbertsioa
- 15) Internetarako sarbide-maila
- 16) Zientzia eta Teknologiako Doktoretza-ikastaroak
- 17) Patenteak
- 18) Arriskueterako kapitala

III. Ekonomiaren aldaketa

- 19) Prezioak bateratzea eta maila erlatiboa
- 20) Industria telematikoko prezioak
- 21) Industria telematikoko merkatuaren egitura
- 22) Kontratazio Publikoa
- 23) Sektorearen laguntzak eta Estatuaren ad hoc laguntzak
- 24) Burtsako kapitalaren igoera



IV. Gizarte-kohesioa

- 25) Aberastasunaren banaketa (income quintile ratio)
- 26) Gizarte-banaketa baino lehenagoko eta ondorengo pobrezia-indizea
- 27) Pobrezia-iraukortasuna
- 28) Herrialde-koherioa
- 29) OHOk ikasketak besterik ez duten gazteak
- 30) Langabezia epe luzean

V. Garapen Jasangarriaren ingurumen-alderdiak

- 31) Negutegi-efektuko gasen isurketak
- 32) Ekonomiaren intentsitate energetikoa
- 33) BPGarekiko garraio-bolumena (merkantzien eta bidaiarien arabera)
- 34) Garraio-ereduaren sailkapena
- 35) Hiriko airearen kalitatea
- 36) Hiri-hondakinak

V. Eranskina. EAEko Goiburuko Ingurumen-adierazleak

EAEKO GOIBURUKO INGURUMEN-ADIERAZLEAK	
Baliabide Naturalen Kontsumoa	1. Material Beharrak Guztira (MBG) 2. Energia-kontsumoa 3. Ur-kontsumoa 4. Lurzoruaren artifizializazio-intentsitatea
Berotegi-efektua eta klima-aldaketa eragiten dituzten gasak isurtzea	5. Berotegi-efektua duten gasen isurpena
Airearen kalitatea	6. Atmosfera poluitzen duten emisioak 7. Airearen kalitatearen indizea
Hondakinak sortzea	8. Hondakinak sortzea 9. Hondakin-kudeaketa
Biodibertsitatea eta Paisaia	10. Biodibertsitatearen indizea 11. Biodibertsitateari dagokionez, berreskuratutako azalera
Uren kalitatea	12. Kontinenteko eta itsasertzeko uretara egindako isurketak 13. Uren kalitatearen indizea
Lurzoruaren kalitatea	14. Ikertutako eta Berreskuratutako Lurzoru Poluituak
Hiri Ingurumena Urbano	15. Herriko mugikortasuna, bidaiarien garraiatzeko moduagatik 16. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) gomendatutakoak baino zarata-maila handiagoak jasaten dituen biztanleria 17. Hiriko airearen kalitatea 18. Tokiko Agenda 21, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan
Ingurumen-arriskuak	19. Ingurumenean eraginak dituzten istripuak
Osasuna eta Ingurumena	20. Osasun-arazoak, ingurumen-faktoreen eraginez
Enpresa eta Ingurumena	21. Ingurumena Kudeatzeko Sistemak enpresetan
Administrazioa eta Ingurumena	22. Gastu publikoa ingurumena babesteko
Ekoezaginkortasun-adierazleak (loturarik eza)	23. Sektorearen ekoezaginkortasuna (industria, energia, lehen sektorea, garraioa eta egoitza)